

# Dokumentazio informatiborako lana

## Dokumentazioa ikus-entzunezko enpresetan eta EITB-ko dokumentazio zerbitzua



\*Ikaslea: Ibon Perez

\*Klasea: Kazetaritza, 2. maila.

\*Taldea: 31, euskaraz

# AURKIBIDEA

## I- Atal Teorikoa

-Laburpena

-Sarrera

### 1. Ikusentzunezko dokumentazioa

#### 1.1. Telebistako dokumentazio zerbitzura sarrera

1.1.1 Ikusentzunezko dokumentazioaren zerbitzu unitatea

1.1.2 Hemeroteka

1.1.3 Fonoteka

1.1.4 Fototeka

#### 1.2. Ikusentzunezko dokumentazioaren jatorri eta garapen historikoa

1.2.1 Ikusentzunezko ondarearen sorpena

1.2.2 Espainian, ikusentzunezko materialaren kontserbazioaren

Oinarri: Filmotekak eta artxiboak

#### 1.3. Ikusentzunezko materialak

1.3.1 Ezaugarri fisikoak: materialen zainketa eta mantenimendua.

-Ondorioak

## II-Atal Praktikoa

-Laburpena

-Sarrera

-Orientazio galderak

### 1. Aztergai dugun enpresaren analisia: Euskal Irrati Telebista.

1.1 Digit bat, digitalizazioaren sarrera proiektua

1.2 Eitbren lurretako Dokumentazio eta Artxibo Saila

1.2.1 Dokumentazio idatzia, hemeroteka

1.2.3 Bideotekako erabiltzaileen gida

1.2.4 Katalogazio irizpideak eta sistemak EITB-ko dokumentazio zerbitzuan.

1.3 EITB eta Rteve-ren Dokumentazio zerbitzuen konparaketa

1.4 Thesaurus askea

### 2. Bisita- txostena (Eitb, lurreta)

2.1 Dokumentazio zerbitzuari buruzko sekretuak 6 galderatan

### 3, Internet, beste dokumentazio modu bat

-Ondorioak

-Bibliografia

*"Sorrera-legeak dioenez, bi helburu handiz jaio zen ETB. Hiritarren arteko informazioa eta eskuhartze politikoa errazteko, batetik, eta euskal hizkuntza, hezkuntza eta kultura sustatzeko, bestetik."*

**Amatiño.**



---

# I.JARRAIBIDE LANA: ALDE TEORIKOA

---

Dokumentazioa  
ikusentzunezko  
enpresetan

---

Dokumentazio informatiboa

---

# Teoriaren laburpena

Ikusentzuzko informazio eta dokumentazio-zerbitzua ezinbesteko zerbitzua bilakatu da azken urteetan hedabide asko eta askotan. Dokumentazio-zerbitzu honi esker, gordetako dokumentuen berreskurapena arautu da, material hori zuzenean erabiltzaileari eskeiniz.

Atal honetan, ikusentzuzko dokumentazioaren sorreran, jatorrian eta ezaugarri nagusietan zentratu gara.

Baina dokumentazio zerbitzu bat hedabide batean sartzea ez da hain simplea. Lehendabizi errealitatea aztertu behar da; hots, mezubidearen informazio beharrianak zeintzuk diren, baita dokumentuen formatu desberdinak eta materialaren berreskurapena zelan egingo den ere. Hori ez da nolanhiko lana, eta zerbitzuaren txertatzea egokia izan dadin nahitaezkoa izango da dokumentazio edo artxibistikan trebatua dagoen profesionalaren esku-hartzea.

# Sarrera teorikoa

Dokumentazio hitza burura etortzen zaigunean, gure herriko liburutegiko liburuzain adintsua etortzen zaigu burura. Artxibo eta katalogoetan usteltzen dauden idatziak direla pentsatu liteke batzutan.

Baina, esanak esan, dokumentalistarena, askotan, gutxietsia izaten den lanbide bat dugu.

Lengoaia dokumentala elementu lexikoez eta erregelez osotutako zientzia dela uste dugu, informazio sistema batean, datuen sarrera eta irteera ahalbidetzen duen prozesua alegia. Metainformazioa da azken batean dokumentazioa, zientzietako informazioa kudeatzeko baliogarri zen eta ezinbesteko bilakatu den zientzia.

Dokumentu idatzien hasi-masi bat dugu, baina baita bideo eta audio fitxategien gordailu-erregistro bat ere. Telebistako dokumentalisten ardura gertaerak jasotzea da, lanabesak gordetzea, euskarri eta formatu desberdinetan, berrerabiltzeko, maileguz uzteko edo hautsa hartzeko.

Lengoaia dokumentala ezagutzaren errepresentaziorako tresna da, bere helburua dokumentuen sailkapena, kontserbazioa eta berreskuperapena delarik. Errepresentazioa, lengoaia guztien funtzio bat da, imagina, soinu, ideia edo zeinu multzo kontrolatu batzuen bidez gorde eta garrantzen dena.

# ***1.-IKUSENTZUNEZKO DOKUMENTAZIOA***

*“Ikusentzunezko dokumentazioaren funtsezko  
printzipioak, alde batetik, ondare dokumentalaren  
zainketa konpromisoa eta bestetik,  
katearen produkzio eta kudeaketaren integrazioa dira.  
Lehenengoa, artxiboen bitarteko berrerabilpenean  
oinarritzen da, izan ere, telebista kate bakoitzeko imajinak  
eta gizaki orok dugun ikusentzunezko memoria horren artean  
konexio bat ematen baita.  
Hala ere, telebista dokumentazioa ikusentzunezko  
produkzio boteretsuaren baitan barneratuta dago!”.*

**Eugenio López de Quintana. Antena 3 TV**

Dokumentazio zerbitzuak **Codinak SID** deitzen dituen horretan barneraturik daude. **SIDak** gordailu batetan edo dokumentu sare batetan erregistratu den

ezaguerari buruzko informazioa lortzen, biltegitratzen, berreskuratzen eta banatzen dute.

SID bat, beraz, informazioaren berreskuraketa dokumentuetan erregistraturik dagoen ezagueraren errepresentazioarekin lotuta dago. Horretarako, sistema osoaren planifikazio bat egin beharra dago, erabiltzailei harrera ona eginez eta ikusentzunezko enpresako langileei ondo tratatuz.

Dokumentazio sistema batek enpresa baten barruan sartzeko, fase batzuk jarraitu beharko ditu:

*Errealitatearen azterketa:* Enpresaren nahiak aztertu beharko ditu, hots, enpresaren beraren informazio beharrianak zeintzuk diren ikusi beharko da. Kazetariaren beharrianak ere garrantzitsuak izango dira, zer motatako informazioa behar duen eta zein modutan aztertu beharko da.

*Diseinu fasea:* Lehenengo fasea bukatu eta gero, sistemaren eredu kontzeptualak diseinatu beharko dira, baina ez hori bakarrik, baita sistemaren elementuak ere. Lan prestakuntza garrantzitsua izango da.

*Sistema horren ezarpena:* Telebista bakoitzak, dokumentazioa bere erara antolatuko du. Hemen ikusiko dugu antolatzeko era ezberdinak:

#### Aktibitatearen arabera:

Antolatzeko era hau, bideotekaren gestioa eta dokumentazio zentroa banatzean datza. Bideotekan, zinten antolakuntzan lan egingo dute, aldiz dokumentazio zentroan imajinen sailean lan egingo dute.

#### Dokumentuaren arabera:

Hemen banaketa hau egiten da: Ikusentzunezko dokumentazioa, dokumentazio idatzia, argazkilaritza dokumentazioa eta soinu dokumentazioa.

#### Programa motaren arabera:

Beste antolamendu bat programa motaren araberakoa izango da. Banatze hau, programa orokorren eta informazio programen artean izaten da.

## **1.1 .-TELEBISTAKO DOKUMENTAZIO ZERBITZURA SARRERA**

Dokumentazio zerbitzuak, beti izan dira enpresa baten barruko zerbitzuak. Baina enpresa hori informazio bat eman eta gero beste enpresa bati saldu ahal dio informazio hori.

Espainiako telebista guztien dokumentazio zerbitzuak komunean dituzten unitateak dituzte:



### 1.1.1.- Ikusentzuneko dokumentazioaren zerbitzu unitatea

Ikusentzuneko dokumentazioaren unitatea garrantzitsuena da eta langile gehien duena.

Dokumentazio zerbitzu honek funtzio ezberdinak ditu:

- 1-Dokumentuen selekzioa
- 2- Zinten erregistroa
- 3-Dokumentuen analisisa eta datu baseen administrazioa
- 4- Informazio bilaketa
- 5-Maileguaren kudeaketa
- 6- Ikusentzuneko materialaren iraupena funtzioak
- 7- Igorpenaren funtzioak
- 8- Igorpenaren erregistroa
- 9- Telezinema
- 10-Salmenta

### 1.1.2.-Hemeroteka

Hemeroteken funtzio nagusia, langileek behar duten informazioa eskaintzea da.

Hedabide askotan dokumentazio idatziak badu garrantzirik. Informazio-iturri erabilia izan ohi da komunikabide askotan, baita telebistan ere.

Ikusentzunezko dokumentazio zerbitzuetan egiten den lana, ezberdina da prentsa idatzian egiten denarekin alderatzen badugu, nahiz izan berdina funtsa eta oinarria, desberdinak dira gordetzeko metodoak, euskarriak eta formatuak.

Ikusentzuneko hedabideek gehienetan EFE agentziara jotzen dute informazio bila. Datu base hau internet bidez bakarrik kontsultatu ahal dute.

Ikusentzuneko mezubide hauetako dokumentazio idatzien informazio iturriak hiztegiak, entziklopediak, atlasak e.a dira.

### 1.1.3.-Fonoteka

Unitate honetan entzutezko dokumentuak biltzen dira.

Soinuak funtzio desberdinak bete ditzake:

-Soinua errealitatearen dokumentu bezala.

-Soinua adierazpen bezala.

- Soinua zarata bezala.

Fonoteka bat eta irratiko artxibo bat, oso ezberdinak dira.

Fonoteka baten dokumentazio prozesua honako hau izango zen:

-Hautaketa

-Eskuraketa

-Erosketa

-Diskografiak

-Handizka egin salmentak

-Merkatu espezializatuak

-Dohaia

-Trukaketa

- Egiaztapena
- Erregistroa
- Signatura

Soinu-dokumentuen tratamendu dokumentalak etapa hauek izango ditu:

- Dokumentua osorik entzun.
- Azaleko analisia .Erregistroaren deskribapena.
- Edukiaren analisia.
- Erregistro dokumentala erregistro informatikoan bihurtu.
- Datuen zuzenketa.

#### 1.1.4-Fototeka

Fototekaren unitatea gutxien erabiltzen dena da ikusentzuneke dokumentazio zerbitzu batean.

Noiz erabiltzen da? Pertsonai baten imajinak ez daudenean.

Digitalizatzen ari diren lehenengo unitateak dira fototekak.

Tratamendu dokumentala fototeka batean honako hau da:

- Eskuraketa eta bilketa
- Identifikazioa
- Hautaketa
- Erregistroa
- Irudiaren azterketa
- Hedapena

Argazkilaritzaren artxiboak informazioa ekoizteko balio izango du.

Ikusentzunezko dokumentazioa, idatzizko-dokumentazioa eta soinuen-dokumentazioa bezala, argazkilaritza-dokumentazioaren balioa handia da.

Fototeka baten ezaugarriak honako hauek dira:

-Lan handia

-Leku gutxi

-Hautaketaren beharra

- Eskari handia

-Erantzun azkarra

-Kanpo iturriak erabiltzearen beharra

## **1.2.-IKUSENTZUNEZKO DOKUMENTAZIOAREN JATORRIA ETA GARAPEN HISTORIKOA**

Prozesatzea dokumentazioaz arduratzen diren enpresa guztien funtsa da. Hau da, dokumentuen kontserbazioa eta eskuragarritasuna, argitaratua izan den materiala denborak eraman ez dezan. Dokumentu bezala ulertzen dugu edozein euskarrian dagoen informazio finkoa, kontsultarako, ikasketarako eta dokumentaziorako erabiltzen dena. Bi motatako dokumentuak daude. Alde batetik, testuak izan daitezke, hauek erraz berreskuratu eta irakurtzen dira eta, beste aldetik, badaude testualak ez diren beste euskarriak eta hauen irakurketarako aparagailu berezien laguntza beharko dugu. Adibidez, diskak edo zintak, dokumentu ikonografikoak, dokumentu informatikoak e.a. Hauek guztiak aparailu berezien bidez irakurri beharko dira.

Ikus-entzunezko dokumentuak euskarriaren arabera banatzen dira: fims-etan euskarria kimikoa edo fotosensiblerik bada eta, bideo zintetan euskarria magnetikoa bada.

### 1.2.1 Ikusentzunezko ondarea sortzea

Ikus-entzunezko ondarea ikus-entzunezko materialaren kontserbazioaren gaineko interesa sortu zenetik ematen da, material hori kontserbatzen da helburu komertzialekin edo erreprodukzioarako berrerabiliak izateko.

Material hauen kontserbazioa hasiera batean filmoteka pribatuetan ematen da, filme bilduma bat baino zerbait gehiago dira, ikus-entzunezko ondarearen ideia jatorria, nolabait. Filmotekak garatuz joan ziren, eta herritarrak apurka ohartzen dira dokumentuen kontserbazioaren garrantziaz. Geroago, marko juridikoa antolatu zuten, honek ondarearen kontserbazioa bideratzen du, honetarako Gordailu Legala sortzen da ikus-entzunezko materialetara zabaltzen dena.

### 1.2.2 Ikusentzunezko materialaren kontserbazioa Espainian: Filmotekak eta telebistako artxiboak

Espainian ondare honen kontserbazioaz bi organu arduratzen dira: 1. Filmotekak: material zinematografikoa. 2. Telebistako produkzioaz arduratzen diren organismoak (telebistako artxiboak): material bideografikoa.

1. Espainiako filmoteka: 1953an sortu zen eta bere helburua Espainiako ikus-entzunezko ondarearen kontserbazioa, ikerkuntza, berreskurapena eta hedapena da.

Espainiako filmotekan produkzio filmatuak aurki daitezke beste material batzuen artean. Beste dokumentu motak ere aurki daitezke eta material honetarako erreferenteak diren liburuak, baita irakurketa material honetarako beharrezkoa den makineria.

Aktibitate hauek finantzatzeko gaur egun estatuko aurrekontu orokorretara jotzen da, edo, filmoteka beraren diru sarreretara: filmotekaren fondoan mailegari esker.

Gordailu Legalak filmotekaren materialak babesten ditu, eta gordailua bera materialen iturria ere bihurtzen da sarritan. Iturriak lortzeko beste bitarteko bat jabe pribatuei erostea da, edo emanaldi desberdinak ematea. Gainera, FIAF-eko kidea izanik materiala lortu dezakezu denbora batean zehar erakunde honek sortutako elkartrukerako sareari esker.

**FIAF (Federación Internacional de Archivos Fílmicos) filmak eta mugimenduko imajinak gordetzeaz arduratzen da. Zeregin horretan aritzen diren erakunde garrantzitsuenak biltzen ditu.**

Bere lana mugimenduko imajinak berreskuratzea, biltzea, mantentzea eta proiektatzea da, imajina horiek arte-lanak, adierazpen kulturalak eta dokumentu historikoak bezala ulertzen dira.

FIAF 1938an sortu zen eta lau herrialdeetako kide zituen. Gaur egun, 120 erakunde (65 herrialde desberdinetakoak) baino gehiago daude bere barruan. Honen bidez, munduko mugimenduzko imajinen kontserbazioak hartu duen indarra neurtu daiteke.

Euskal Autonomi Erkidegoan inizatiba hau pribatua da eta 1978an **Euskal Herriko Filmoteka** sortu zen, baina, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen du.

**Euskal Herriko Filmotekak** 1.300.000 metro linealaz gozatzen du. Bere lokalak 11-13 gradu bitarteko tenperaturan daude eta 50-65 bitarteko gradu hezetasuna mantentzen dute.

Bere gordailuetan material mota desberdinak ditu: antzinako Euskal Herriko zinema, jatorrizko materiala edo gai euskalduna, bideo ez-komertzialak, euskarazko bertsoak eta 3.000 titulu Euskal Herriko zinemarekin erlaziorik ez dutenak.

Materiala lortzeko beste modu interesgarri bat Donostiako zinemaldia da. Filme saritu guztiak gordetzen dira eta, errealizadore Euskaldunen lan guztiak ere bereganatzen dira. Euskal Herriko Filmotekak Gordailu Legalaren babesa ere badu.

**Telebistako artxiboak:** hasiera batean telebistako artxiboetan ez da existitzen ikus-entzunezko ondarrerik. Materialak emititzen ziren, baina ez ziren grabatzen ez zegoelako horretarako tresnarik.

Lehenengoak arazo hau konpontzen arrazoi praktikoengatik edo funtzionalengatik zerbitzu informatiboak izan ziren. Espainiako Telebista informatiboentzako zerbitzuetan eta programetarako zerbitzuetan banatuta dago, aldi berean badaukate Radio Nacional-aren artxiboak material entzunezkoa duena, hau musikazko eta hitzezko dokumentuak gordetzen ditu.

Radio Televisión Española-ko artxiboak kolaborazio zuzena dute NODO (albistegi dokumentala) filmoteka espezializatuarekin, zeinek filmotekak NODO artxiboko titulartasun juridikoa du eta RTVE bere kudeaketaz, kontserbazioaz eta tratamenduaz arduratzen da.

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez bere artxiboa sortzen da hasiera batetik Estatu Espainioleko esperientzia ikusita. Hau dela eta hasieratik aurreikuspen amankomun bat dute ikus-entzunezko fondoentzat. ETB-n hasieran berri zuzenak ematen dira, baina bitartekoaren garapena dela eta beharrezkoa da artxibo bat informazioa berreskuratzeko.

## **1.3 Ikusentzunezko materialak**

### **1.3.1 Ezaugarri fisikoak: materialen zainketa eta mantenimendua.**

Informazioa mantentzeko oinarrizko materialen barruan 4 daude: papera, pelikula edo filmea, zeluloide berestalia emulsio fotografikoarekin, material magnetikoa (zintak), plastikoa (diskoak).

Material hauen barruan lehenengoz hitz egin behar dugu azken hiruri buruz, ikus-entzunezko dokumentazioaren espezifikokoak izategatik:

**1. Pelikula film:** filme fotografiko bat da poliesterko geruza bat duena, zeluloide emulsiotatua jartzen zaio zintaren gainean eta erreakzio kimikoaren bidez erreakzionatzen du eta errebelatuaren bidez finkatzen da. Filmak hainbat zulo ditu marjinetan filmea makinaren bidez arrastatzeko.

**Kontzerbazioa:** filmak baldintza determinatu batzuetan egon behar dira bere hondatzearen azkartasuna ekiditzeko, hauen artean aipatu dezakegu: argi zuzena ekiditzea, hezetasuna altua ekiditzea onddoen kalteak ekiditzeko, hautsa ekiditzea oso zailak direlako garbitzeko eta marratzeak sahiestea.

**Formatuak:** material honen barruan formatu mota desberdinak daude: zehazki 3: 35 mm. Profesionala dena, 16 mm. zale formatukoa eta 8 mm gaur egun erabilpenaren kanpoan dagoena.

**Soinua:** soinuaren barruan bi mota aipatu dezakegu: **soinu magnetikoa** ( audiozko zinta film-aren gainean, filmeari itsatsita doa), **soinu optikoa** (zelula fotoelektrika), aurrekoa baino kalitate handiagokoa da baina soinua ezin da modifikatu filmearen beste kopia bat egin baino lehen. Fotograma hondatzen bada itsasten eta ebakitzen da bi ebaketa lapranekin. Kontserbaziorako nitratoa eduki altua kontuan izatea ere azpimagarria da.

**2. Material magnetikoa** poliesterreko geruza bat du eta burdin oxidozko edo kromozko edo metal taldezko beste geruza bat ere.

Material honek eremu magnetikoen bidez oxidozko geruzan modu antolatu batean grabazioa produzitzen du, gero aparatu erreproduzitzaileak imajinetan edo soinueta bihurtzen ditu.

Kalitatea poliesteraren eta jarritako oxido partikulen araberakoa izango da. Zintak irakurtzeko buru irakurle batetik pasatzen dira, hau dela eta biak oso garbiak egon behar dira (zinta eta buru irakurlea). Kromozko oxidozko karga burdina baino kalitate handikoa zen, zintak beti gorde behar dira birbobinatutak eta oso estu erroilatuak egon gabe. Eremu magnetikoetatik pasatzea oso komenigarria ere ez da. Aldi berean, komenigarria da noizean behin zinta birbobinatzea informazioa geruza batetik bestera ez pasatzeko.

## **Euskarriak**

**a. Soinuzko zinta:** Bi formatu ditu; bobina eta formatu profesionala (63 mm-ko zabalera erroilatua duena aurpegi magnetikoarekin barrurantz). Euskarri honetan zati bat utzi behar da hasieran eta amaieran erroilatzeko eta datuak idazteko, kalitate handiena duena da, baina osoa ikusi behar da nahi duzun informazioa berreskuratzeko, ezin dira salturik eman.

**Casette:** abiadura estandarra du eta audiozkoak bi aurpegi ditu grabatzeko. Iraupen ezarria dute. Gero eta luzeagoak orduan era zailagoak dira kontserbatzeko zinta finagoa delako. Komenigarria da bere kutxan birbobinatzea eta betileak kentzea bererabilia ez izateko.

**Cassette DAT(digital):** aurrekoa baino txikiagoa da. Bideoa bezalako karkasa itxia du eta formatu profetionalekoa da. Ez du berreskurapen sekuentziala Compact Disc bezalako da.

**b. Bideoa:** material mota honetan erreproduzio abiadura estandarizatuta ere badago, modu honetan lortzen da abiadura eta kalitate handiagoarekin artxibatzea. Magnetoskopioren burua garbitu behar da berarekin kontaktatzen duen edozein gauza grabazioa kaltetu dezakeelako. Zintan grabatuta dagoenaren beste kopia egitea komenigarria da bere erabilera mugatua delako eta inoiz ez dakizulako zein den bere azken erabilera. Lanaren kopiak telebistako edo filmotekako artxiboetan erabili daiteke: lehenengoan, berezko erabilerako eta, bigarrenetan, ikus-entzunezko ondarea kontserbatzeko.

**Bideozko zintaren grabazio prozesua:** Bideozko zintaren erabilera zuzenean grabatzean denean *master* bat hasieran grazazio oso ona izango ez dena hasi dela esan daiteke; baina jarraian zinta birjin bat jartzen da kopiarako, modu honetan beste dokumentuak ere tartekatuta daiteke zinta horren grabazioaren zehar.

### **Formatoak:**

**Bobinak.** Hazbete batekoak dira (1"), hau zen formato profesionala 4 urte arte, orain ia ez da erabiltzen. 1982tik 1992 arte ETB-n grabatzeko erabiltzen zen.

**Cassette:** hiru laurden hazbetekoa (3/4") da. Azken sei urte arte erabili da. Bobinak baino kalitate gutxiagoa du, baina formato eramangarrikoa da, 2 audio kanalak ditu, bat ingurugiroko soinuari dagokio eta bestea estudioko soinuari. Hau ordezkaturia izan da Betacam-etik. **Betacam-ak**, pulgada erdikoak dira (1/2"), hauek 2 modalitatekoak dira *Betacam handia*(60-90 minutu; grabazio luzeetarako) eta *Betacam txikia* (10-20-30 minutu; grabazio laburretarako). Gaur egun badaukagu Betacam digitala.

**VHS.** Etxeko formatua da.

### **3. MATERIAL PLASTIKOA** (Biltegiatze optikoko sistemak)

Sistema honen oinarriko euskarria material plastikoa da, aluminiozko geruza islatzaile batekin estalita dagoena, eta aldi berean lakako geruza batekin estalita.

Informazioa koska moduan ezarrita dago espiralean. Informazioaren berreskurapena laser baten bidez egiten da, azal baten gainean informazioa islatzen duena. Euskarri informatiboaren eta tresna erreproduzitzailaren artean kontaktu ez dagoenez ez da hondatzen erabileragatik. Kontu izan behar da euskarria garbi egon behar delako bestela ez da ondo irakurtzen.

#### **Sistema biltegiatzen optikoaren abantailak**

a.) Formatu txikia da non informazio kantitate handiak gorde daiteke. Digitalizazioari mesede egiten dio. Artxiboaren sistema orokorra dokumentuen digitalizazioarentzat



DON-a da (Disco Óptico numérico), sistema hau ordenagailuaren bidez irakurtzen da guztiz informatizatua dagoelako. Bere arazoa publikoarentzat ez dagoela salgai da.

b.) Euskarri honen beste abantaila bat kontserbaziorako duen baldintza onak dira, erabileragatik ez delako higatzen, eta honengatik bere erabilera mugagabea da

#### Grabazio sistema optikoak

##### 1. Sistema Analogikoa.

Sistema analogikoa soinu- edo ikus-entzunezko informazioak seinale elektrikoetan bihurtzen ditu. Baina hurrengo kopiekin intentsitatea eta kalitatea galtzen du.

##### 2. Sistema Digitala.

Imajinen eta soinuaren informazioa binakako kodigoetan bihurtzen ditu. Erreproduktzio perfektuak egiten ditu, kopia digitala orijinalaren kлона da.

#### Biltegiak optikoaren euskarria

1. **CD.** Audioaren euskarria.

2. **CD ROM.** Audioaren euskarria, imajina eta testu finkoa.

3. **Compact Disc Video.** Oraindik ez dago publikoarentzat salgai.

3. Ikus-entzunezko ondarearen kudeaketa.

3.1. Aukeraketa.

3.1.1. Aukeratzeko politikak eta arauak.

Aukeraketan aukeratzen dira zein dokumentu gordeko diren etorkizunean kontsultatzea interesgarriak izan daitekeenak. Aukeraketa politikoaren helburu nagusia fondoaren dokumentuen hedapena da. Politika hau zenbait parametroen arabera egiten aurrera eramaten da: pertsonala, baliabideak, zentron espezializazioa, erabiltzaile motak, eta beste zentrokekin izandako erlazioak.

Ikus-entzunezko ondarea kudeatzeko orduan desberdintasuna dago Filmoteka edo Ikus-entzunezko artxiboen artean beraien helburuak oinarri bat dutelako. Filmotekak material ahalik eta gehien kontserbatzen saiatzen dira, baina ikus-entzunezko artxiboak bere barneko produktiorako erabilgarriak izan daitekeen dokumentuak soilik kontserbatzen dituzte.

Aukeraketa prozesua estandarizatzeko FIAT nazioarteko organismoa arau batzuk ezarri ditu:

#### **Denborazko irizpideak**

Printzipioz jarraitu behar da politika bat non dokumentu guztiak gorde behar dira epe motz baterako, dokumentuak 5 urterako gorde behar dira. Epe hau garrantzitsua eta

beharrezkoa da posible egiten duelako ikuspuntu historikoaren ebaluazio objektiboa egiteko. Ezinezkoa bada guztia gordetzea orduan bai egin behar da aukeraketa bat.

### **Irizpide materialak**

Gorde behar da material mota guztia bere formatua kontuan hartu gabe, materiala ezin du aukeraketa bideratu lehenengo momentu batean. Material publikatua ez publikatua baino garrantzi handiagoa du soziologikoki. Kontserbatu behar da emisio egun oso bat hilabetero eta posiblea bada parrilla aldatzen den bakoitzean.

### **Aginpide irizpideak**

Irizpide bat egiteko beti da komenigarria ikuspuntu bat baino gehiago kontuan hartzea. Hainbat saili aukeraketa irizpide batzuk dagozkie: a/ Dokumentazio saila- Irizpide historikoa, b/errealizazio saila, irizpide artistikoa, c/sail teknikoa, kalitate irizpidea, d/salmenta saila, salmenta irizpideak

FIAT-aren arabera bermatu behar diren dokumentuen kontserbazioa: 1/ historia eta telebista garapenaren materiala. 2. interes historikoa duten pertsonak agertzen diren dokumentuak. 3/ interes soziologiko duen materiala. 4/ arte-lanak, eraikinak, makineria eta abar agertzen diren dokumentuak. 5/ leku geografikoak erakusten duten dokumentuak. 6/ errealizatzailaren lanarentzat garrantzitsua den informazioa

Beste irizpide batzuk ere badaude:

1. Errentagarritasun potentziala, bererabiltzeko aukera handia daukatenak.
2. Bere ondare balorearen arabera.
3. Nazionalitate irizpidea. Bereko produkzioaren kontserbazioa

#### 3.1.2. Garbiketa

Material bat baztertu baino lehen azken aukeraketa da, baina ez da bakarra. Materialaren kalitatea kontuan hartzen da. Badago ere aukeraketa politiko bat a posteriori: lehen aukeratutako material baten inguruan.

### **Zein materialaren arabera:**

Emisiotik etorritako zintak ( aurrez grabatutako programak edo zuzenean grabatutakoak)

Grabazio orijinalekoa.

Agentziako materiala

Emisio kopiak

# Ondorio teorikoa

Telebistak hedabide konplexuak eta propioak diren eta beste iturri batzuetatik eskuratutako dokumentuen kudeaketaz arduratzen diren enpresak dira. Dokumentazio zerbitzuan, ikusentzunezko dokumentuez gain beste batzuk ere badaude, horregatik informazioa kudeatzeak ahalegin handia eskatzen du, erabilitako euskarri eta formatuak garrantziarik ez duen arren.

Hedabide berriek lan honetan azaldutako eredu hau onarritzat hartzea ez da gure helburua. Egindako lan honen bidez aztertutako komunikabidearentzat egokiena den ereduak zein den aukeratzeko eztabaida baten hasiera izatea nahi dugu.

Gure ustez, dokumentazio zerbitzuaren antolaketa eta egitura erabiltzaileen eta enpresak dituen giza baliabideen eta ekonomikoen araberakoa izan beharko litzateke. Honela, irizpide dokumental batzuk baztertu beharko lirateke beste irizpide eraginkor batzuen mesederako.

Dokumentazioak dituen irudi eta soinu zerbitzuak errekurso gutxi eta baliabide ekonomiko urriak dituzten enpresentzat zalantzarriak direla uste dugu. Ikusentzunezko informazioaren kudeaketa eta idatzizko informazioaren tratamendua onarritzak dela iruditzen zaigu.

---

# II.JARRAIBIDE LANA: ALDE PRAKTIKOA

---

Eitb-ko  
dokumentazio  
zerbitzura egindako  
bisita txostena

---

Dokumentazio informatiboa

---



Eitb-k Iurretan (Bizkaia) duen egoitza

# PRAKTIKAREN LABURPENA

Teorian ikusi genuena (dokumentazioaren tratamendua ikus-entzunezko enpresetan) errealitatean nola gauzatzen den ikusteko, beharrezko izan genuen Euskal Irrati Telebistak Iurretan duen egoitza bisitatzea. Zeregin horretan, Jesús Andérezek bere laguntza eskaini digu eta berari esker EITB-ko dokumentazio zerbitzuaren funtzionamendua ezagutu ahal izan dugu. Egoitza erakutsi ondoren hainbat galderei erantzun zien Anderezek, eta horrela eskuratu genuen lan honetan erabili dugun informazioa.

Dokumentazio Saila ETBko barne-zerbitzu bat da eta hiru atal nagusi ditu: Fonoteka, bideoteka eta hemeroteka. Kontsultak egiteko erabiltzaileak ETBko langilea dela frogatu beharko du, lan egiten duen programa edo saila zehaztu eta kontsultaren zergaitia azaldu. Kasu batzutan (erabiliezinak diren zintak, kanpo-bilaketak e.a.) beharrezkoa izango da produktorearen edo sailean-saileko arduradunaren baimena. Kanpoko ekoiztetxeetako langileek artxiboko materiala eskuratzeko aukera izango dute, baimena lortuta beti ere. Kanpotik egindako eskaerak Salmenta Saitetik bideratzen dira.

ETBko ikus-entzunezko artxiboen tratamenduan funtsezkoa da bideoteka. 170.000 zinta gordetzen dira ETBn formatu desberdinetan: VHS, S-VHS,  $\frac{3}{4}$  UMATIC, BETACAM, BETACAM\_SP, BETACAM DIGITAL.

Dokumentazio zerbitzu honetan igorritako material guztiak gordetzen dira eta baita igorri ez diren batzuk ere. ETBk igorritako telesail, programa edo lehiaketa guztiak gorde egiten dira. Albistegian erabilitako imajinak ere gorde egiten dira, aurkezleen aurkezpen-imajinak izan ezik.



# Sarrera praktikoa

Euskal Herri mailan duen garrantziagatik eta interesagatik aukeratu dugu ETB. Euskal Telebistak gainera Euskal Herrian, Espainian eta Europan duen prestigioa dela eta, oso aberasgarria iruditzen zitzaigun bere dokumentazio zerbitzua aztertzea. Era berean, esan beharra dago, euskal kazetari orori gustatuko litzaiokeela honelako enpresa garrantzitsu batean lan egitea eta gu, noski, horien artean gaude.

Euskal Herri mailan ikus-entzule gehien dituen euskal telebista katea izateaz gain, egindako bisitarekin dokumentazio zerbitzu konplexua duela ohartu ginen. Dokumentuak sailkatzeko eta katalogatzeko hainbat sistema erabiltzen dira eta gainera, teknologia berrienekin.

Bisita hau Apirilaren 18an egin genuen, lan honen alde praktikoa garatzeko helburuarekin. ETB-ko Dokumentazio zerbitzuko zuzendariarekin bildu ginen, Jesus Anderez jaunarekin hain zuzen.

Jesus Anderezek, telebista kateko dokumentuak nola sailkatzen diren erakutsi zigun, baita katalogatzen eta gordetzen ere. Etb-ko dokumentazio zerbitzua hiru ataletan banatzen da: fonoteka, hemeroteka eta bideoteka. Hala ere, bideoteka bakarrik ikusi ahal izan genuen.

2006. urtean, bestalde, aurrera egin du DIGIBat proiektuak, EITBk euskal hiriburuetan daukan egoitzak erabat berritzea eta ingurune digital eta multimedia berrira egokitzea ekarriko duen proiektua. Datorren urtean burutuko da, Bilboko egoitza berria ireki eta Miramongo Programen Ekoizpeneko Zentroa guztiz berriztatzen denean. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu komunikabide aro berriak ekarriko dituzten aurrerapenenei buruz berba egitea.

# ORIENTAZIO GALDERAK

Informazioa zelan katalogatu eta berreskuratzen den ikasteko, Euskal Herriko hedabiderik indartsuenetako bat den ETBren Iurretako zentrorra joango gara laister bisitan. Ikusentzunezko dokumentazioari dagokion teoria landu ondoren, galdera batzuk iradokitu ditugu, jarraibide praktikoan oinarri izan ditzagun:

1. Zeintzuk dira ETBren Iurretako Dokumentazio eta Artxibo Departamentuan eskeintzen dituzten zerbitzu garrantzitsuenak? Zer gordetzen dute euretako bakoitzean?
2. Bideotekari dagokionez, zein euskarritan (zahar zein berria) daude gordeta dokumentuak? Zein euskarri erabiltzen dute gehien gaur egun?
3. 3 erreminta oinarriekin lan egiten dute dokumentazio buruak: horietako lehena, katalogoen datu basea. Zein da erreminta honen funtsa? Zer informazio jasotzen du? Zuek sortua/garatu ala kanpotik erositakoa da?
4. Bigarren erreminta datu base dokumentala da. Zertan bereizten da aurrekotik? Zein hizkuntzatan egiten dira bilaketak datu base horretan? Eurek sortua ala kanpotik erositakoa da?
5. Hirugarren erreminta datu-zinten errobotak dira. Digitalizazioarekin batera iritsitako erreminta da hau. Zer jauzi kualitatibo ekarri du berarekin?

Hori, 3 erreminta funtsezkoak dagokienez.

Horrez gain:

6. Bilaketetan erabiltzen duten hizkuntza, kontrolatua ala kontrolik gabea da? Sinonimia eta enparauekin zer gertatzen da?
  7. Zein maiztasunez bisitatzen dute *Vaya Semanita*-koek (adibide bat jartzeagatik) dokumentazio-zerbitzua?
  8. Zer gertatzen da gisa horietako programekin edota *zapping* programekin? Zertan dira egile eskubideak barne zein kanpo produkzioari dagokienez?
  9. Material editatua ala editatu gabea gordetzen dute dokumentazio zerbitzuan? Zenbat bideo zinta dituzte orotara gordeta?
  10. Zertzuk aldaketa nagusi ekarri ditu digitalizazioak dokumentazio zerbitzura? Zer gertatzen da, adibidez, albistegiekin duela 2 urtetik hona?
-

# 1.-Aztergai dugun enpresa:

## Euskal Irrati Telebista



EiTBren lurretako egoitza



EiTB taldea Euskadiko lehenengo komunikazio taldea da; lau telebista kate ditu eta bost irrati emisore. Hain zuzen ere, 2000ko maiatzean adinez nagusi egin zen eta hori ospatzeko irudi berria estreinatu zuen: gaur egunekoa, dinamikoa eta erakargarria. Orintsu interneteko negozio bat sortu da, EITBNET, S.A. Tarte honetan sendotu egin da komunikabide moderno eta eraginkor gisa eta egunero-egunero milioi bat herritar baino gehiagorekin egiten du bat, batez ere, hurbileko informazioa eta entretenimendua eskainiz.

EiTB Taldea EAEko komunikazio eta multimedia-talde publikoa da. EITB Taldeak, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta eragingarria bermaturik, eginkizun hauek ditu.

- EAEko herritarrei era guztietako progra- mazio-generoak eskaintzea, kalitatezko informazioan eta entretenimenduan dituzten premiei erantzuteko.
  - Munduari eta, batez ere, atzerrian bizi diren euskaldunei EAEn gertatzen den guztiaren berri ematea.
  - Euskararen erabileraren normalizazioa eta sustapena bultzatzea.
- Euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena eta garapena sustatzea.
- Euskadin informazioaren gizartearen garapena bultzatzea.

Esan dugunez, EiTB taldeak bost irrati emisore ditu eta denen artean 300.000 entzuletik gora dituzte egunero; irrati bizi, moderno eta hurbileko baten erakusgarria dugu: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Euskadi Gaztea eta EiTB Irratia.

Lau telebista kate ere baditu: ETB 1, ETB 2, ETB SAT (Europako ikusleei zuzendua) eta CANAL VASCO (Amerikako ikusleei zuzendua).

EiTB taldearen barruan EiTB Erakunde Publikoa eta ondoren adierazitako




sozietateak daude, bakoitza bere nortasun juridikoarekin.

ETB, S.A.

Eusko Irratia, S.A.

Radio Vitoria, S.A.

EiTBNET, S.A.



1982ko maiatzaren 20an, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Euskal Irrati Telebista sortzeko legea eta azaroaren 23an Euskadi Irratiaren emisioak hasi ziren. Euskal Telebista, berriz, 1982ko abenduaren 31n, gauerdiko hamabietan ikusi zen aurrenekoz Euskadiko etxeetan eta urrengo urtean, otsailaren 16tik aurrera emisioa erabat arautu zuten. Garai hartan 30 lagun aritu ziren Iurretako egoitzan, euskara hutsean egiten zen programazioa eskaintzeko.

---

(...) En el ejercicio de dicha competencia y respetando el concepto de servicio público esencial, se configuran en la presente Ley los medios de comunicación social a los que la misma se refiere como instrumento capital para la información y participación política de los ciudadanos vascos, así como medio fundamental de cooperación con nuestro propio sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera, todo ello como base y fundamento para el adecuado desenvolvimiento de los derechos y libertades de los ciudadanos de esta Comunidad Autónoma.

(...)Artículo 3

La actividad de los medios de comunicación social cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma se basarán en los siguientes principios:

- a) La objetividad, veracidad e imparcialidad de las informaciones.
- b) La distinción y separación entre información y opinión, requiriendo esta última la identificación de quienes la manifiestan. Igual tratamiento diferenciado y separado requerirá la publicidad comercial.
- c) El respeto al principio de igualdad, al pluralismo político, religioso, social, cultural y lingüístico.
- d) La defensa y promoción de los valores cívicos de la convivencia reconocidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía, en defensa del interés general.
- e) El respeto a cuantos derechos reconoce la Constitución y el Estatuto de Autonomía.
- f) El respeto al honor, la fama de las personas y, en particular, el derecho a la intimidad y la propia imagen.

g)

La protección y promoción de la juventud y de la infancia.

h)

La promoción de la Cultura y lengua vasca, estableciendo a efectos de la utilización del euskera, los principios básicos de programación, teniendo presente la necesidad de equilibrio a nivel de oferta global de emisiones radiotelevisivas en lengua vasca en la Comunidad Autónoma.

**5/1982 Legea, martxoaren 20koa, "Euskal Irrati Telebista" Herri Erakundea sortzeko**

---

Urte batzuk geroxeago, 1986ko maiatzaren 31n, ETB-2 gaztelaniaz emititzen duen

katea sortu zen eta, gaur egun, nazioarte mailako beste bi kate gehiago daude. ETB Sat horietako bat da. 2001eko maiatzetik Canal Satellite Digital eta EiTbren arteko itunari esker, Europako 87 milioi etxetara iristen da irekian ASTRA satelitearen bitartez. Espainiako Estatuan Digital + plataforman ikus daiteke. EiTb taldearen laugarren telebista katea, Canal Vasco, Ameriketarako pentsatutako katea dugu gehienbat. Ikusleek kable enpresen edo DTH amerikarren bitartez jaso dezakete.

Urte batzuk geroxeago, 1986ko maiatzaren 31n, ETB-2 gaztelaniaz emititzen duen katea sortu zen eta, gaur egun, nazioarte mailako beste bi kate gehiago daude. ETB Sat horietako bat da. 2001eko maiatzetik Canal Satellite Digital eta EiTbren arteko itunari esker, Europako 87 milioi etxetara iristen da irekian ASTRA satelitearen bitartez. Espainiako Estatuan Digital + plataforman ikus daiteke. EiTb taldearen laugarren telebista katea, Canal Vasco, Ameriketarako pentsatutako katea dugu gehienbat. Ikusleek kable enpresen edo DTH amerikarren bitartez jaso dezakete.

Gainera, EiTb taldea osatzen duten bost irrati kateek egunean 300.000 entzule baino gehiago dituzte. Izan ere, Euskadi Irratiak, urrengo urtean, otsailaren 16tik aurrera emisioa erabat arautu zuten. Garai hartan 30 lagun aritu ziren Iurretako egoitzan, euskara hutsean egiten zen programazioa eskaintzeko.

## EiTb ESPAINIAR TELEBISTA ESTAZIOEN EGITURAKETAN

Telebista kate nagusiak

Kate autonomikoak

[Canal 9](#) | [Canal Sur](#) | **EiTb** | [iCi](#) | [TVC](#) | [TVG](#)

Lurreko telebista digitala

[Canal 24 Horas](#) | [Teledaporte](#) | [Docu TVE](#) | [TVE 50 Años](#) | [Sony Entertainment Television](#) | Antena.Neox | Antena.Nova | Telecinco Estrellas | Telecinco Sport | [[CNN+]] | 40 Latino | Fly Music

Satelite eta kable bidezko plataforma

[[Digital+]] | [ONO](#) | [Euskaltel](#) | [Mundo-R](#)

[IPTV](#), Internet + telebista ([ADSL](#) sistemaren inguruan)

Satelite eta kable bidezko plataforma

1.1- **DIGIBat**


Proiektu  
berria

*DIGIBat EITB Komunikazio  
Taldearen digitalizazio  
integralerako proiektua da,  
2007an erabat burutuko dena.*

**DIGIBat** euskal hiriburuen akronimoa da, denen arteko lotura digitala aditzera eman nahi duena.

Gaur egun, Iruñako, Gasteizko eta Iparraldeko (Baionako) egoitzak amaituta eta lanean hasita daude, Bilbokoa inauguratu berria dago. Aurtengo nobedaderik garrantzitsuena Iruñako egoitzan irrati deskonexioak egiten hastea izan da. Aipaturiko hiru egoitzek EITB Taldearen zerbitzu guztiak biltzen dituzte.

*Dokumentazioari* dagokionez, Bilboko egoitza berria, 46.000 ordu baino gehiagora iritsiko den ikusentzunezko materialak artxibatzeko gai izango da adibidez.



## ***1.2 EITBren IURRETAKO DOKUMENTAZIO ETA ARTXIBO SAILA***

Irrati zerbitzua albo batera utziz, guk, EiTbren telebista zerbitzuko dokumentazioa aztertuko dugu.

**Euskal Telebistako** Dokumentazio eta Artxibo Sailak bi funtzio nagusi ditu:

1.- ETBko igorpena eta ekoizpena gordetzea, albistegiaren tratamendu dokumentala eta tratamendu propioa.

2.- Euskarri dokumental bat eskeintzea barruko erabiltzaileei eta, baimenduta dauden kanpoko erabiltzaileei.



=



### ***ZERBITZU GUNEA***

Bideoteka: Ikus-entzunezko Informazioaren ardura izango du. Honetatik aparte, ETBko igorpena eta ekoizpena gordeko ditu. Zeregin horretarako, datu-baseak egiten dira artxibatu materiala indexatzeko, artxibo-irudi eta programei buruzko informazioa eta eskaeraz arduratuko da eta igorpen zintak prestatuko dira, Aurkezpen Departamentuaren eskura jartzen dituelarik.

### ***DOKUMENTAZIO IDATZIA***

ETBko sail desberdinen informazio eskaerei erantzuten die. Horretarako, erreferentzia materialen eta liburuen gunek bat dago beren-beregi eta, batez ere, egunkari eta aldizkarien informazioa jasotzen du.

### ***FONOTEKA***

Musika-giroterako programen eskaerak jasotzen ditu.

ETBko irudi finkeen mantenimenduz ere arduratzen da. Programen errealizazioarako tresna garrantzitsuak dira hauek.

### ***SARBIDEA***

Dokumentazio Saila ETBko barne-zerbitzu bat da. Kotsultak egiteko erabiltzaileak ETBko langilea dela frogatu beharko du, lan egiten duen programa edo saila zehaztu eta kotsultaren zergaitia azaldu. Kasu batzutan (erabiliezinak diren zintak, kanpo-bilaketak e.a.) beharrezkoa izango da produktorearen edo sailean-saileko arduradunaren baimena. Kanpoko ekoiztetxeetako langileek artxiboko materiala eskuratzeko aukera izango dute, baimena lortuta beti ere. Kanpotik egindako eskaerak Salmenta Saitetik bideratzen dira.

Bideoteka, ETBko ikus-entzunezko artxiboez arduratzen da. 170.000 zinta gordetzen dira ETBn formatu desberdinetan: VHS, S-VHS,  $\frac{3}{4}$  UMATIC, BETACAM, BETACAM\_SP, BETACAM DIGITAL.

#### *PROGRAMEN ARTXIBOAK*

Igorritako programak hartzen ditu (nola norbere ekoizpenekoak, hala kanpokoak) eta, kopiak formatu desberdinetan gordetzen dira. Zuzenean igorritako programetatik eta igorpenetatik kopia bat egiten da BETACAM SP formatuan eta hau ere gorde egiten da.

Zinta hauek dira ETBko igorpenen artxiboa. Igorpenerako, artxibo zatiak edo irudiak eskuratzeko edo emisio formatuei kopiak egiteko erabiltzen da.

#### *KIROL ETA ALBISTEGIEN PROGRAMAK*

Kirol eta albiste programetatik, CHYRONSiK gabe editatutako batzuk hautatzen dira. Programa bakarrean editatu direnak zinta baten kopiatzen dira (konpaktatua dagoena) eta, soinu kanal biak mantentzen.

#### *GRABAZIOKO ORIGINALAK*

Modu selektiboan kontserbatzen dira originalak: Beste programa edo erreportaje baterako erabilgarri diren irudi neutro eta kalitatezkoak daudenean; eta, irudi eskuragaitzak edo etorkizunean oihartzuna izango duten irudiak tartean baldin badaude.

#### *AGENTZIEN MATERIALA*

Agentzia Internazionalen eta FORTAren irudiak toki desberdinetan gordetzen dira.

#### *IGORPENAREN KOPIA (VHS)*

Etxeko formatuan egindako grabazio osoa da, eta baita kopia juridikoa ere. Lehen igorpenetik oso-osorik gordetzen da, 1983tik, eta 1988tik aurrera BETAMAX

formatuan. Zati historikoa, bost urte baino gehiago dituen, Euskal Filmen Gordailuan kontserbatzen da.

#### *MATERIAL HISTORIKOA EDO ARTXIBOKO IRUDI ESLEITUAK*

Hirugarren pertsonak emandako edo utzitako bideo eta filmak bideotekan gordetzen dira, artxiboko material lez, erabilera arauekin batera. Material mota honen barruan, Euskal Filmen Gordailuak utzitakoak nabarmendu behar dira.

#### *KONTSERBAZIO POLITIKA*

Kontserbazioa hobetzeko, bi gordelekutan kontserbatzen dira artxiboak, Miramonen bat eta Iurretan bestea, hezetasun eta tenperatura baldintza aproposetan. Zintarik zaharrenak formatu digitalera pasatzen ari dira ondo kontserbatzeko.

#### *DATU BASEAK*

Datu basean dagoen materialaren zati bat dokumentalistek gordetzen dute. Haiak aztertzen dute, deskribatzen eta indexatzen. AIRS sistemaren bidez berreskuratu ahalko da.

Deskripzio maila desberdina da materialaren arabera: norbere ekoizpeneko materiala, eta batez ere material informatibo edo kiroletakoak, ondo deskribatu behar dira. Laburpen kontzeptuala egin behar da edukia zehaztuz, irudien deskribapena eta irudien, gaiaren eta irudien indexazioa. Kanpo-produkzioko programak katalogazio mailan soilik deskribatzen dira: titulua, kreditua, datu teknikoak e.a.

Bideotekako oinarria AUDIOVI da, 190.000 erreferentzia baino gehiago dituen:

- Igorpen programazioko informazioa eskuratu daiteke
- Informazio hori duten euskarriak bilatu daitezke
- Kanpo produkzioei saltzeko edo ekoizpen berri bat egiteko, irudi zehatzen berreskuraketa ahalbidetzen du.

Norbere ekoizpeneko programen edukia, laburpen batez lagundurik joaten da, AIRS sisteman.

#### *KONTSULTA MOTAK*

Bideotekak honakoa eskeintzen du:

-Berrerabiltzeko irudiak

-Gai konkretu bati buruz igorri denaren informazioa

-Igorritako programei buruzko informazioa.

Kontsulta bat egiten denean, bilaketak egiten dituen dokumentalistak, materialik egokienak bilatzen ditu datu basean. Zerrendatik zintak aukeratu eta erabiltzaileak jasoko ditu maileguz.

## ***ERABILERA ARAUAK***

### ***BILAKETAK***

Erabiltzaile berriek datu pertsonalak eman behar dituzte. Artxiboko irudien bilaketarako garrantzitsua da bilaketa egin behar duenak dokumentalistarekin hitz egitea (Iurretan Iurretakoak eta Miramonen Miramonekoak). Eskaera aurrez aurre edo telefonoz egin daiteke. Irudirik egokienak bilatzeko, ondo zehaztu behar da zer aurkitu nahi den, zertarako eta zein motatako irudiak eskuratu nahi diren. Modu honetan, dokumentalistaren lana errazten da, eta baita erabiltzailearena ere, nahi duena zuzenez jasoko duelarik.

### ***ZINTAK LAGATZEA***

Maileguz utzitako zintak ahal bezainbat azkarren bueltatu behar dira; bai norbaitek behar izan ditzakeelako, eta baita hauen kontserbazio baldintza onenak bermatzeko ere. Zintak ondo zaindu behar dira, etiketak kontuz erabiliz eta zintak beti kutxan gordez. Tenperatura aldaketa zakarrak saihestea komeni da, ez da komeni, era berean, eguzkitan edo berotasun iturrien ondoan lagatzea.

ETBko egoitzaetik ezingo dira atera zintak eta, erabiltzaileak eskuragarri izan beharko ditu beti beste erabiltzaile batek behar baldin baditu ere. Programak muntatzeko denbora gehiago behar denean, zintak dokumentazio espazio alternatiboetan lagako dira, eskuragarri beti ere. Horrela, zintak ordenatuta, eskuragarri eta baldintza onetan egongo dira.

Maileguak programa informatiko batek kontrolatzen ditu: aste bat edo bi maileguz lagatako dauden zintak eskatu egingo dira automatikoki. Artxiboko zintak bakarrak izaten dira kasu batzuetan eta, galtzen edo apurtzen badira ez dago kopiarik eta materiala galtzen da.

## *IRUDIEN ERABILERA*

Bideotekak irudirik egokienak eskaini behar ditu erabiltzaileak eskatzen dituenean, erabilera arauak azaldu behar ditu, baina erabiltzaileak ondo zaindu beharko du materiala.

Artxiboko irudien erabilera murriztuta dago:

- COPYRIGHT edo jabetza eskubidea

ETBkoak ez diren programetako irudiak ezin dira ekoizlearen edo banatzailearen baimenik gabe erabili. ETBk ez badauka argitalpen eskubiderik, ekoizlearen sinadura beharko da, eta erabiltzailea arduratuko da sinadura hori lortzeko egin beharrekoaz.

- Instituzio edo pertsonen irudiak

Kontu handia izan behar da testuingurutik kanpo pertsonak identifikatu badaitezke irudietan, baita instituzioa edo markak agertzen badira ere. Pertsona anonimoen lehen planoak ekidin behar dira, baita ezagun diren objektu pertsonalekin ere: Drogamenpekotasun arloan, alkoholemia, gaixotasunak, sexu harremanak e.a.

## **1.2.1.-DOKUMENTAZIO IDATZIA, HEMEROTEKA**

### *ITURRIAK*

#### *PRENTSA ARTXIBOAK*

Prentsako dossierrak: gaiaren araberako sailkapena eta biografikoa. Dossier bakoitzaren barruan prentsako informazioak kronologikoki sailkatzen dira. Gaurkotzea egunerokoa



da egunerokoetatik eta aldizkarietatik jasotzen da informazioa. Informazio zaharra ezabatu egiten da.

### *HEMEROTEKA*

Dossierrak egiteko fotokopiak ateratzen zaizkie egunkariei. Jasotako egunkarietatik, ale bat sei hilabetez gordetzen da. Informazio orokorra ematen duten aldizkariak Departamentuan kontsultatu ahal dira. Artikulu batzuk ere fotokopiatzen dira, eta bildumak ez dira gordetzen.

### *LIBURUTEGIA*

Erreferentziako materiala dago batik bat liburutegian: hiztegiak, entziklopediak, urtekariak, direktorioak, estatistikak, atlasak....

### **KONTSULTA MOTAK**

Honakoa eskaintzen du dokumentazio idatziaren zerbitzuak:

- Erantzun azkarra: data, izen bat, informazioa e.a.
- Dossier zehatzak, kronologikoak, biografikoak e.a. eskaera zehatz bati erantzuteko.
- Datu zehatzen edo erreferentzia bibliografikoen bilaketa.
- Albiste garrantzitsuen bilaketak.

### ***ERABILERA ARAUAK***

Kontsultak egitean informazio mota eta bilaketaren helburua zehaztu behar da dokumentalistak bere lana errazago egin dezan.

Prentsa dossierrak Departamentuan bertan kontsultatu behar dira, edo interesgarri diren zatien kopiak atera. Liburutegiko liburuak maileguz eskatu daitezke, oinarritzko erreferentziakoak eta erabilera murriztuta duten CD-ROMak izan ezik.

### ***1.2.2.-FONOTEKA ZERBITZUA***

## ***OINARRIAK***

Entzunezko materiala eskaintzen du, musika komertziala eta soinu efektuak. Formatu desberdinak erabiltzen dira: Vinilo, CD, DAT eta cassette.

## ***KONTSULTA MOTAK***

Sintonien, rafagen, programetako kareten eta beste lanabes batzuen kontsultak egin daitezke.

Aurrez-aurre edo telefonotik egin daiteke eskaera. Erabiltzaileak eskaintza jasoko du formatua aukeratzeko.

Fonotekatik ezin daiteke diskarik atera.

## **1.2.3.-BIDEOTEKAKO ERABILTZAILIEN GIDA**

### ***FUNTZIOAK ETA ZERBITZUAK***

ETBren emisioak eta, batez ere, ETBk produzitutako saioak gordetzen ditu, eta albistegiaren eta etxeko produkzioen tratamendu dokumentala egiten du, artxibatutako materialaren deskribapena eta indizea osatzen duen datu baseen bidez. Emisioko zintak ere prestatzen ditu, Aurkezpen Sailaren esku utziz. Euskarri dokumentala eskaintzen die (irudiak, audioa eta informazioa)barneko erabiltzaileei eta kanpoko erabiltzaile baimenduei.

### ***OINARRIAK***

Bertan biltzen dira: etxean zein kanpoan produzitutako emisio saioak, informatiboen eta kirol-saioen editaiei konpaktazioak, jatorrizko grabazioak, nazioarteko agentzietako eta FORTAko materiala, emisioaren kopia juridikoa, material historikoa, erositakoa eta lagatakoa.

### ***ERABILTZAILIEN ARRETA ZERBITZUA***

Alta jasotzeko, erabiltzaileak fitxa bat bete beharko du. Fitxa hori, gero, maileguen datu-basean sartuko da.

Kanpoko ekoiztetxeetako langileek Artxiboko materiala eskura dezakete, aldez aurretik baimena eskatuta. Kanpotik datozen eskaerak Salmenta Saitetik bideratzen dira.

Zenbait kasutan, materialaren ezaugarriak direla-eta (erabilera mugatua, baimenak...), dagokion Saileko buruaren edo produktorearen baimena beharko da. Ahal bada, eskaerak leihatilan egingo dira, eskaera orria betez. Bestela, telefonoa ere erabili daiteke. Kasu batzuetan, eskaerak e-maila bidez ere egin ahal izango dira, dokumentazioa@eitb.com helbidera idatziz. Edozein modu erabilia ere, komeni da dokumentalistari eskaerari buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea.

Behin bilaketa dokumentala eginda eta materiala aurkituta, erabiltzaileak materiala jaso ahal izango du, eta zinten mugimendu guztiak datu-base batean jasota geratuko dira. Materiala lurretik Miramonera (edo alderantziz) eraman behar denerako, garraio zerbitzua dago (lurretina). Miramonera 16:30ean heltzen da, eta lurretara 18:30-19:00etan. Beraz, eskaerak 13:00ak baino lehen egin behar dira Miramonen edo 16:00ak baino lehen lurretan.

#### *ZINTAK ITZULTZEKO EPEAK*

Artxiboko materiala ahalik eta arinen itzuli behar da. Maileguen epea 15 egunekoa da, orokorrean. Informatiboen eta kirolen erredakziorako, zintak 7 egun baino lehen itzuli beharko dira. Sail eta kasu berezietan, epe hori luzatu egin daiteke.

Behin maileguaren epea pasatuta, materiala sistematikoki eskatuko da itzultzeko. Zintak kontuz erabili behar dira, etiketak errespetatuz eta bakoitza dagokion kutxan gordez.

#### *MUGAK ETA MURRIZKETAK*

Artxiboko irudiak erabiltzeko muga batzuk daude, produktuaren eskubideen edo copyright-aren jabearen arabera aplikatuko direnak.

Pertsonen irudiak kontu handiz erabili behar dira, irudi horiek jatorriz grabatutako testuingurutik kanpo eman nahi badira eta, batez ere, irudiok albiste edo egoera negatiboei lotuta badaude (gaixotasunak, drogamenpekotasuna, istripuak, alkoholemia...).

Erabiltzailearen erantzukizuna izango da artxiboko irudiak txarto erabiltzea.

## **1.2.4.-KATALOGAZIO IRIZPIDEAK ETA SISTEMAK EITB-KO DOKUMENTAZIO ZERBITZUAN**

Euskal Telebistaren dokumentazio sailak, bi informatika aplikazio ditu bideo materialak kontrolatzeko.

Lehenengoa, datu-basea kudeatzeko sistema da eta Oraclen oinarrituta dago. Datu-base hau erlaziozkoa da eta oinarritzko katalogazio bat ahalbidetzen du gordetako zinta guztietan. Honetaz aparte, materialen mugimendua kudeatzen du sistema honek; hau da, irteera maileguak eta itzulpenak. Erregistroak sinpleak dira; bertan, materialen deskribapen fisikoa baitator. Horrez gain, datu teknikoak eta programen edota kapituluaren igorpen tituluak ere agertzen dira. Metodo honek, materiala formatu eta ekoizpen datuen (produktzio zenbakia, kapituluak, igorpen data...) arabera sailkatzen ditu.

Bigarren aplikazioak agiriaren kudeaketa zehatz bat bideratzen du datu-base bat erabiliz. UNIX zerbitzariak eta AIRS softwareak katalogazioa errazten dute, thesaurus automatizatu bat erabiliz. Dokumentuen berreskurapena, kontsulten, testu askeen erreferentzia gurutzatuen, eremu kodetuen eta deskribatzaileen bidez lortzen da.

Datu-base hauen erregistroek, deskripzioen beheko mailatik ( adz. edukiaren laburpena soilik daukaten programak) maila gorenera arte (adz. Programa informatiboak, tituluak daukatenak, laburpen bat, sekuentzien deskribapena eta deskribatzaileak) barnean hartzen dituzte. Deskribapenaren sakontasuna hiru atalen arabera banatzen da: programa motaren, eskubide jabetzaren eta batez ere, materialak duen berrabilpenaren arabera.

### **SARRERA MAILAK:**

Hiru sarrera maila daude programen materialerako:

\*KATALOGAZIO SINPLEA (deskribapen fisikoa): Laguntzaile batek ekoizten du, materialen ezaugarriak jasoz eta ekoizpen sailak emandako informazioa erabiliz. Artxiboan sartutako material osoari aplikatzen zaio.

\*KATALOGAZIO ERDIA (edukiaren laburpenarekin): Berezko ekoizpen programetan aplikatzen da eta dokumentalistek ekoizten dituzte materiala zuzenean ikusi gabe. Programen sortzaileek ematen duten informazioarekin, edukiaren laburpena egiten da, eta beharrezkoa denean, indexatzen da.

\*KATALOGAZIO OSATUA (edukiaren deskripzio zehatza egiten da): Dokumentalista trebatuek egiten dute katalogazio mota hau eta programa ikusiz eta deskripziorako ezarritako prozedura eta arauak jarraituz. Honen barnean, sekuentzia nibelaren deskripzio osoa, edukiaren laburpena eta deskribatzaileak sartzen dira ere.

### ***DATU-BASEAREN EGITURA:***

Gaur egun, bi datu-base daude: AUDIOVI eta MASTERS (jatorrizko grabazioentzako tarteko oinarria)

AUDIOVI basea, sei eremutan banatuta dago; erabiltzen den materialaren arabera, deskribapen berezi bat zehazten duena.

\*FORMA: Batez ere eguneroko programa informatibo gordinak hartzen ditu bere barnean, FORTAren trukeak eta nazioarteko agentziak

\*PROGRAM: Aparteko edo seriean dauden berezko programentzako, koprodukziorako, agindutako ekoizpenentzako, edo antena eskubidentzako erabiltzen da( eguneroko informatiboak eta kirol programak ez ezik).

\*ORIGINA: Ekoizpen berezko programentzako.

\*SERIE: Emititutako berezko ekoizpena duten erregistro guztiak barnean hartzen ditu. Artxiboan mantendutakoak eta ez daudenak ere.

\*KIROLFOR: Eguneroko kirol informatiboentzako.

\*KIROLPRO: Edozein kirol programentzako edota emanaldientzako.

AIRS erregistro bakoitzak informazioa egituratzen du eremu desberdinetan. Batzuk kontrolekoak dira(Analista),beste batzuk deskribapen fisikoari egiten die erreferentzia (Iraupena), eta beste batzuk izaera analitikoa dute(Deskriptoreak) edo erantzukizunaren esparruaren barnean daude (Zuzendaria)

Antzeko eremuak, lexiko eremu anitzetan taldekatzen dira aldi berean. Hori dela eta, bilaketa zabalak egiteko aukera dago, bilatu nahi den hitza indexatuta dagoen edozein eremutan topa daitekeelarik.

<b><i>EREMUAK</i></b>	<b><i>LEXIKOEN ARTEKO LOTURA</i></b>	<b><i>EREMU-ANIZTASUNA</i></b>
AKTOREAK	BAI	EZ
AZTERTZAILEA	BAI	EZ
KOLABORATZAILEA	BAI	EZ

ESKUBIDEAK	BAI	EZ
ZUZENDARIA	BAI	EZ
JABARIA	BAI	EZ
SORMENEZKO ZUZENDARIA	BAI	EZ
DOKUMENTUEN AKLDAKETA	BAI	EZ
IGORPEN JARRAITUA	BAI BAI	BAI
ERREPRODUKZIO DATA	BAI BAI	BAI
GENEROA	BAI	EZ
OHARRAK	BAI	EZ
PRODUKTUAREN ZENBAKIA	BAI	EZ
IRUDIEN ZENBAKIA	BAI	EZ
PRODUKTUA	BAI	EZ
ARTXIBOEN KONTSULTA	EZ	EZ
ERREALIZADOREA	BAI	EZ
ERREPRODUKZIO SISTEMA	BAI	EZ
GAIA(K) TOKIA(k) PERTSONA(K)	BAI BAI BAI	BAI
IZENBURUA EDUKIA ALBISTEEN LEKUA MINUTUAK	BAI BAI BAI BAI	BAI
BERTSIOA	BAI	EZ

## ***INDEXAZIO LEXIKOA***

Bi tresna ditugu indexazioa lortzeko: Thesaurus eta genero lexikoa. Thesaurus materialen berreskurapena lortzen du(gaika, irudi zehatzak, geografi lekuak, pertsonak eta erakundeak). Genero lexikoa: Sailkapen honekin bere generoagatik programa seriatuak berreskuratu ahal dira.

### ***EiTBen ERABILITAKO THESAURUS-a***

\*ERANTZUNKIZUNA: EiTB dokumentalista taldeak landuta , TV3 tesauruaren egokitzapena da.

\*HIZKUNTZA: Gaztelania ( sarrera batzuekin euskaraz; batez ere, geografia sinonimoak).

\*ERABILGARRITASUNA: Online.

\*TERMINO ZENBAKIAK: Guztira 13.000 termino ditu:

- 3.500 deskribatzaile tematiko
- 2.500 geografikoak
- 6.000 pertsonak

\*ZEHAZKETA: Singularra edo plurala, termino konposatuak, izenkide kontrola, hedadura oharrak.

Onartutako laburdurak, izen propioak.

\*AZPIBANAKETA: 76 Talde nagusi daude (deskriptore tematikoak) eta 7 talde geografiko handi.

\*GORENEKO HIERARKIA NIBELA: 9

\*ERLAZIOZKO EGITURA:

- Hierarkia erlazioa: termino orokorra/termino berezia.
- Baliokidetasun erlazioa: sinonimoak/taldeko erlazioa.
- Erlazio bateragarria: erlaziozko terminoak.
- Hedadura oharrak

\*MANTENIMENDUA: Astean eguneratzen da eta horretarako arduradun bat dago.

\*ERABILPEN ARGIBIDEAK: Deskribapen eta azterketarako eskuliburu bat dago. Bertan arau orokorrak aipatzen dira.

\*KARAKTERE MOTA: Hitz larriak/zenbakiak, puntuazio estandarra

\*SOFTWAREA: AIRS

### **GENERO LEXIKOA**

Deskribatzaile zerrenda bat da, berbategirako pentsatuta dagoena. Telebistako programa seriatuak berreskuratzeko eta irizpide praktikoetan oinarrituta prestatu da.








Bere funtzioa telebistazko generoa, zuzendutako publikoa eta tratatzen den gaia deskribatzea da. Geografia esparrua ere deskribatzea bere betekizuna da, baina neurri txikiagoan.

Alfabetoaren arabera aurkezten da (aipatutako 4 irizpideen arabera). Zerrenda honetan sinonimo batzuk sartzen dira barnean.

Deskripzio zerrenda

<b>GENEROA</b>	<b>SINONIMO DESKRIPTOREAK</b>
KAMERA EZKUTUA 	ERREPORTAIAK, ZIRIAK
KONTZERTUAK 	FESTA, MUSIKA TALDEAK
LEHIAKETA(K) 	ZOZKETAK, APUSTUAK, SMSak, TELEFONO DEIAK



<p>EZTABAIDA(K)</p> 	<p><i>KALE-ITAUNKETA, TERTULIA(K)</i></p>
<p>MARRAZKI BIZIDUNAK</p> 	<p><i>AISIALDIA, UMEENTZAKO MARRAZKIAK</i></p>
<p>HEZITZAILEAK</p> 	<p><i>HEZITZAILEAK, PEDAGOGIKOAK</i></p>
<p>DOKUMENTALA(K)</p> 	<p><i>ERREPORTAIK, BIDAI KRONIKAK, IKERKUNTZA</i></p>
<p>DRAMATIZAZIOA</p> 	<p><i>ERREALITATE BIRMOLDAKETA</i></p>
<p>ELKARRIZKETA</p> 	<p><i>ITAUNKETAK, ADITUEI EGINIKO GALDEKETA</i></p>
<p>EGUNEROKO ALBISTEGIAK</p> 	<p><i>GAURKOTASUNA, BERRIA</i></p>

<p>ALBISTEGI BEREZIAK</p> 	<p>AZKEN ORDUKO ALBISTEAK, BOZAK, EZBEHARRAK</p>
<p>EGUNEROKOAK EZ DIREN ALBISTEGIAK</p> 	<p>ALBISTE EZ ARRUNTAK</p>
<p>MAGAZINAK</p> 	<p>KAZETARITZA BEREZITUA</p>
<p>INSTITUZIOEN ADIERAZPENAK</p> 	<p>GOBERNUAREN DEKLARAZIOAK, LAKUA , EUSKO JAURLARITZA, ESPAINIAKO MINISTERITZA, FRANTZIAKO MINISTERITZA</p>
<p>ESPAZIO TXIKIAK</p> 	<p>PUBLIERREPORTAIK</p>
<p>PROGRAMEN PROGRAMAK</p> 	<p>ATALAK, SEKZIOAK, SAILAK</p>
<p>URTEKO LABURPENAK</p>	<p>KRONOLOGIKOAK, JAZOEREN AKTA</p>



SKETCH-AK

ANTZERKI, ZINE, IRRATI, TELEBISTA, ESZENA LABURRA,  
BANDA ESZENIFIKATUA

TALK-SHOWAK



**TESTIGANTZAK**

TELESAILAK



ATAL, DENBORALDI, FILM, PROGRAMA, AKTORE

BIDEOKLIPAK



KANTA, KONPOSIZIO MUSIKAL, BIDEO, LABURMETRAJE

PUBLIKOA



JENDEAURREKO, HERRITAR, ENTZULE, IKUSLEI

HAURRAK ETA GAZTEAK



HAURTZARO, ADIN, BELAUNALDI, GAZTARO

<p><b>GEOGRAFIKOA</b></p> 	<p>GEOGRAFIA, EREMUA, AZTERKETA, AZTERLARI</p>
<p><b>AFRIKA</b></p> 	<p>KONTINENTE, GIZAKIAREN SORTERRIA, LURRALDEA</p>
<p><b>ARABA</b></p> 	<p>EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEA, PROBINTZIA, LURRALDE HISTORIKOA</p>
<p><b>AMERIKA</b></p> 	<p>KONTINENTEA, IPAR AMERIKA, HEGO AMERIKA</p>
<p><b>TXILE</b></p> 	<p>HEGO AMERIKA, ESTATUA, ERREPUBLIKA, DIKTADURA OHI</p>
<p><b>TXINA</b></p> 	<p>ASIA, HERRIALDE, KOMUNISTA</p>
<p><b>KUBA</b></p> 	<p>ERDIALDEKO AMERIKA, ESTATUA, DIKTADURA</p>

<p>EEBB</p> 	<p>ESTATU BATUAK, A.E.B</p>
<p>EUROPA</p> 	<p>EUROPAKO BATASUNA (EB), ESTATUAK, ESPAZIO GEOGRAFIKO, NAZIO</p>
<p>EUSKAL HERRIA</p> 	<p>EUROPAKO HM-ko NAZIOA, HEGO EUSKAL HERRIA, IPAR EUSKAL HERRIA</p>
<p>GIPUZKOA</p> 	<p>EUSKAL HERRIKO PROBINTZIA, KOSTALDEKO LURRALDEA, EAE-ko LURRALDE HISTORIKOA</p>
<p>IPARRALDEA</p> 	<p>IPAR EUSKAL HERRIA</p>
<p>NAFARROA</p> 	<p>EUSKAL HERRIKO LURRALDE HISTORIKOA, PROBINTZIA</p>
<p>PERU</p> 	<p>ERREPUBLIKA, HEGO AMERIKAKO ESTATUA</p>

HEGO-AMERIKA



AMERIKAREN HEGOALDEKO ZATIA, PANAMOKO ISTMOTIK HEGOALDERA DAGOEN LURRALDEA

BIZKAIA




EUSKAL HERRIKO PROBINTZIA, EAE-ko LURRALDE HISTORIKOA

GAIAK

ATAL, AZPIATAL

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA




LUR LANKETA, JARDUERA EKONOMIKOA, ABERE ZAINKETA, NEKAZARIA, ABELTZAINA, LEHENEGO SEKTOREA

ALPINISMOA



**MENDIZALETASUNA, MENDIGOIZALETASUNA**

ANTROPOLOGIA









GIZAKIEN IKERKETA, ZIENTZIA, ANTROPOLOGIA FISIKO, ANTROPOLOGIA KULTURAL, ANTROPOLOGIA SOZIAL

ARKITEKTURA



ARKITEKTU, ERAIKUNTZA, DISEINUA

<p>ARTEA</p> 	<p>KULTURA, AISIALDIA</p>
<p>ARTISAUTZA</p> 	<p>ARTISAUA, JARDUERA, LANBIDE</p>
<p>ASTRONOMIA</p> 	<p>ZIENTZIA, ASTROEN IKERKETA, ASTRONOMO</p>
<p>SASKIBALOIA</p> 	<p>KIROLA, BALOIA, ARBITRO (EPAILE), TALDE</p>
<p>BERTSOLARITZA</p> 	<p>BERTSO, BERTSOLARI, BERTSOGINTZA,</p>
<p>BIOGRAFIA</p> 	<p>BIZIPEN, BIZI-ERREGISTRO</p>

ZURI-BELTZA



ARRAZA, KOLORE

BOXEOA



ESKULARRI, BORROKALARI, LEHIAKETA, BORROKALDI

ESKULANAK



ESKULANGILE, ESKULANGINTZA

TXIRRINDULARITZA



BIZIKLETA, TXIRRINDULARI, ABIADURA, PELOTOI, SPRINT, ERREPIDE

ZIENTZIA



EZAGUTZA OBJEKTIBO, NATURA, GIZAKIA

ZIENTZIA EZKUTUAK



ASTROLOGIA, SORGINKERIA



ZINEMA



ZINEMA, ZINEMAGILE, ZINEMAGINTZA, ZINEMARATU, ZINEMASKOPE, ZINEMATEKA, ZINEMTIKA, ZINEMATIKO, ZINEMATOGRAFIA, ZINEMATOGRAFIKO, ZINEMATOGRAFO

KOMIKIA



BINETA-SEGIDA, ISTORIO IRUDIKATUA, PERTSONAI, KOMIKILARIA

KONTSUMOIA



EROSKETA, SALKETA, KONTSUMO-GIZARTE, ONDASUN, PRODUKTU

ELKARLANA



KOOPERAZIO, LANKIDETZA



KULTURA

KULTURADUN, KULTURAL

DANTZA

DANTZA, DANTZALEKU, DANTZATOKI, DANTZA EGIN, DANTZARI, DANTZATU, DANTZALDI, DANTZARI-DANTZA



HERRI KIROLAK	OHITURA, TRADIZIO, OSPAKIZUN
KIROLAK	KIROLARI, JARDUERA, JOLAS, AHALMEN FISIKO
MOTORE KIROLAK	GIDARI, MOTOREA
EKOLOGIA	<i>INGURUMENA, BIOLOGIA, ZIENTZIA</i>
EKONOMIA	EKONOMIA POLITIKO, ENPRESA-EKONOMIA, FAMILI-EKONOMIA, MERKATU-EKONOMIA, EKONOMIA PLANIFIKATUA, EKONOMIA ZENTRALIZATUA
ESKULTURA	ARTELAN, ESKULTORE, OBRA, ESKULTORE
ETNOGRAFIA	ZIENTZIA, GIZABANAKOEN JARDUEREN AZTERKETA
EUSKERA	EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA
ANIMALIAK	FAUNA, IZAKI BIZIDUN, ERREINU
JAIK	FESTA, OSPAKIZUN
LANDAREAK	FLORA, LORATEGI, IZAKI ZELULANITZ
ARGAZKIGINTZA	ARGAZKI, ARGAZKILARI, ARGAZKILARITZA
FUTBOLA	KIROL, BALOI, JOKALARI
GASTRONOMIA	SUKALDARITZA, JATETXEA, SUKALDIAR, ERREZETA
GEOGRAFIA ETA BIDAIK	UDALERRI, IBILBIDE TURISTIKO, HONDARTZAK. PAISIAK
HERRI KIROLAK	KIROL, IHARDUERA, JAI, OSPAKIZUN, JOKO, TRADIZIO
HISTORIA	HISTORIALARI, GERTAEREN KONTAKIZUN
UMOREA	AISIALDIA, TXISTEA

INDUSTRIA	EKONOMIA, MERKATARITZA, SEKTOREA
INFORMATIKA	KONPUTAGAILU, ELEKTRONIKA, TEKNOLOGIA,
LOREZAINZA	LANDAREA, LORATEGI, LORADENDA
JAZZA	MOTAK, ISPIRITUALAK, BLUES, RAGTIME, WORK SONG, JAZZ-JOLE,
LITERATURA	LIBURUAK, IDAZLEAK, ALDIZKARIAK, ARGITALETXEAK
MAGIA	ZIENTZIA EZKUTUAK, MAGOA, SORGIN
MEDIKUNTZA	BARNE MEDIKUNTZA, DERMATOLOGIA, ENDOKRINOLOGIA, GINEKOLOGIA, HEMATOLOGIA, KARDIOLOGIA, KIROL MEDIKUNTZA, MEDIKUNTZA INTENTSIBOA, NEFROLOGIA, NEUMOLOGIA, NEUMOLOGIA
MEDIKUNTZA ETA OSASUNA	FARMAKO, MEDIKU, TRATAMENDU, TXERTO, PAZIENTE, PREBENTZIO, PANDEMIA, INFEKZIO, OSASUN, OSPITALEAK
METEREOLOGIA	KLIMATOLOGIA, AIREAREN TENPERATUR, HEZETASUN ERLATIBOA, PREZIPITAZIOA, HAIZEAREN BATEZ BESTEKO ABIADURA, HAIZEKADAREN ABIADURA, HAIZEKADAREN ABIADURA MAXIMOA,
MITOLOGIA	MITOA, JAINKO, FILOSOFO, ARRAZOIMENA
MODA	GUSTUAK, AZKEN TENDENTZIAK
MUSIKA	KULTURA, MUSIKARI, INSTRUMENTU, KONPOSITORE
MUSIKA KLASIKOA	MUSIKA MOTAK, GENEROA
ABESBATZAK	A CAPELLA, EMANALDI KORAL, ESZENATOKI, ANTZOKI, KORUA
EUSKAL MUSIKA	TALDEAK, BAKARLARIAK, MUSIKA ESTILOA, EUSKARA
NATURA	MENDIA, ITSASOA, PAISAIA
OPERA	TENOREA, SOPRANOA, MEZZO SOPRANOA, BARITONOA, ALTUA, BAXUA, ESZENATOKIA, ARTEA, SONOTA
ITSAS PAISIAK	KOSTALDEA, HONDARTZAK, LABARRAK, BIZKAIKO GOLKOA,

	<i>KANTAURI ITSASOA</i>
<i>PAILASOAK</i>	<i>ZIRKUA, ENTRETENIMENDUA, UMOREA, AISIALDIA</i>
<i>ESKU PELOTA</i>	<i>PILOTA, NORGEHIAGOKA, TRADIZIOA, PILOTARIA, BINAKAKOA, BURUZ BURUKOA, LAU ETA ERDIKOA</i>
<i>ARRANTZA</i>	<i>BAXURAKO ARRANTZA, ALTURAKO ARRANTZA, ITSASOA, ARRAINAK, TRADIZIOA, LEHEN SEKTOREA, HEGALUZZEA, ANTIXOA, BERDELA, BALEA</i>
<i>MARGOLARITZA</i>	<i>DISEINUA, BARNE APAINKETA, ESTILISMOA</i>
<i>POLITIKA ETA INSTITUZIOAK</i>	<i>AGINTARITZA, GOBERNU ORGANUAK, ALDERDI POLITIKOAK</i>
<i>ERLIJIOA</i>	<i>DOGMA, FEDEA, SINISMENA, TRADIZIOA, OHITURA, ELIZA, ERLIJO KATOLIKOA, JUDAISMOA, HINDUISMOA, TAOISMOA, BUDISMOA, PROTESTANTISMOA, ERLIJO ISLAMIARRA</i>
<i>ROCKA</i>	<i>MUSIKA, ROCK &amp; ROLL, EUSKAL MUSIKA TALDEAK, ATZERRIKO MUSIKA TALDEAK</i>
<i>GIZARTEA</i>	<i>GIZARTE KRONIKA</i>
<i>ANTZERKIA</i>	<i>KALE-ANTZERKIA, AISIALDIA, AKTOREAK, ANTZERKIGINTZA,</i>
<i>TEKNOLOGIA</i>	<i>BERRIKUNTZAK, AURKIKUNTZAK, GARAPENA</i>
<i>ETXEKO GAIK</i>	<i>FAMILIA, ELEKTROGAILUAK</i>
<i>TENISA</i>	<i>KIROLA, PELOTA</i>
<i>ZEZENAK</i>	<i>TRADIZIO ESPAINIARRA, ZEZEN PLAZAK</i>
<i>TRAFIKOA</i>	<i>ERREPIDEKO SEGURTASUNA, GIDARIAK, AUTOAK</i>
<i>URBANISMOA</i>	<i>HIRIGINTZA, HIRIAK</i>

**(\*)** Negritan ez dauden sinonimoen deskriptoreak guk osatu ditugu.

### 1.3.-EITB ETA RTVE-REN DOKUMENTAZIO ZERBITZUEN KONPARAKETA:

*«Euskal telebistaren sorrerak TVEren monopolioa hautsi zuen» «Euskal Telebistak ez zuen laguntza handirik izan garai hartan. TVEri laguntza eskatu zitzaion, baina TVEko zuzendaritzak trabak jarri zituen»*

Otermin



TORRESPAÑA VS MIRAMON?

Euskal Irrati Telebistako dokumentazio zerbitzua Espainiako RTVE-ren dokumentazio zerbitzuarekin konparatu dugu. Bi komunikabide hauen parekotasunak eta desberdintasunak aipatu eta azalduko ditugu hurrengo orrialdeetan.

Lehen parekotasuna bi enpresa hauen izaeran legoke, hau da, biak publikoak direla. Komunikabide hauek duten bigarren parekotasun bat telebista kate bat edukitzeaz gain, irrati zerbitzu batekin kontatzen dutela izango litzateke.

Baina esan beharra dago bi komunikabideen artean ezberdintasun nabaria dagoela, batez ere, artxibo eta dokumentuak kontuan hartzen baditugu. Desberdintasuna ez da hain nabaria, ordea, erabiltzen diren euskarri eta baliabideei erreparatuz gero.

TVE-k Gobernu Espainiarraren laguntza izan zuen bere hastapenetan baina Etb-k, berriz, oztopo ugari aurkitu zituen lehen urteetan. Etb-k, batez ere frankismoaren garaian, arazo ugari izan zituen. Garai honetan euskararen erabilera debekatu baitzen eta horrenbestez euskal dokumentazio zerbitzua bertan behera gelditu zen (eukal dokumentuen gabezia zela eta).

## *RTVE-ren DOKUMENTAZIO ZERBITZUA: ERAKUNDEA ETA HELBURUAK*

1981 ean sortu zen dokumentazio zerbitzu organiko hau Dirección Gerencia de TVE S.A. ren barnean dago. Sozietate honen helburua dokumentazioaren aurrerapenei erantzuna ematea zen, batez ere, tratamenduaren eta mantenuaren esparruan.

RTVE-ko dokumentazio zerbitzuari buruz Apirilak 6an onartu zen eta Disposición General 4/1992ek erregulatzen duen legearen 6. artikulua arabera honako arautegia du :

6.1 art.: TVE-ko dokumentazio zerbitzuak bere gain edukiko dituen dokumentuen mantentzea, kustodia eta dokumentuen hedapena.

6.2 Art. Dokumentazio zerbitzuko jarduerak ondarezko izaera duten printzipioetara egokitu beharko dira. Dokumentuen zuzendaritza eta barneko antolamendua, berriz, estatuko sozietateen ardura izango da

6.3 Art. TVE-ko dokumentazio zerbitzuak era berean, funtzio batzuk beteko ditu. Funtzio hauek Jefaturas de Documentación de RNE, S.A. eta Área de Producción de Programas Informativos de TVE, S.A., Documentación del Centro de Producción de Cataluña de TVE, S.A. eta gainerako dokumentazio unitateekin kooordinatuko dira. Gainera, Comité de Gestión de Documentación-en irizpide orientatzaileak eta Comisión de Selección y Catalogación-ek hartutako erabakiak jarraitu beharko dituzte. Bete beharreko funtzioak hauek dira:

a) Eduki edo arrazoi teknikoak direla eta beharra duten materialeen kopia egitea.

b) Katalogo eta zerrendak burutzea beharrezko informazioa Unidades de Producción de Programas-i errazteko eta RTVEko artxiboetara heltzeko.

d) Telebistaren eta irratiaren, bereziki Radiotelevisión Española-ren, ezagupenaren eta garapenaren ikasketarako interesgarriak diren dokumentu inprimatuaren azterketa eta tratamendua.

e) Estatuko sozietateen berezko ekoizpeneko programei laguntza dokumental, zientifiko eta informatiboa ematea.

f) RTVEko artxiboen erabilpena piztea erakunde kultural eta hezigarrien bidez.

g) Hezkuntzaren eta kulturaren esparru desberdinetan RTVEren dokumentuen erabilpena eta hedapena bultzatzen duten liburu, katalogo eta aldizkarien edizioan laguntzea.

6.4.Art: RTVE-eko Centro De Formación-en helburuetako bat RTVE-ko langileen etengabeko prestakuntza denez TVE-ko Dokumentazio zerbitzuak honekin eta gainerako bulegoekin langileen artxibo,sistema konbentzional eta informatikoen inguruko heziketa dokumentalaren hedapen eta aplikazioa beharrezkoa izatea koordinatzeaz aduratu beharko da.

Erakundea oinarrizko helburu hauetan oinarritu da lan egiteko orduan

a)Artxibo zentrala eraikitzea.Artxibo hau epe luzean RTVEren ondare guztiaren hedapenaren eta mantenuaren arduraduna izango da.

b)Unitate desberdinek dokumentuen ustiapen arrazional eta uniformerako erabilitako teknika eta prozesuen koordinaketaz arduratzen da.

d) Dokumentazio ez informatibo guztia zuzenean kudeatzen du.

Bi alderdi ditu erakundeak:barnekoa eta kanpokoak.

Barneko alderdian Dokumentazio zerbitzuak dokumentu desberdinen kudeaketa unitate moduan egiten du lan, besteak beste:

1)TVE-ren berezko ekoizpena

2)Besteen ekoizpena( pelikula komertzialak,dokumentalak eta abar.TVE-k bere emisiorako lortutakoak dira eta hauek beraien emisio partzialerako mantentzen dira.

3)NODO artxibo historikoa

4)TVE-ren Servicios informativos eta Centros Territoeriales de TVE dokumentu zaharrak.

5)RTVE-ren beste dokumentu batzuk.Dokumentu hauek mantentzeko erakundearen esku geratu dira.

Etbk kudeatzen dituen dokumentuen artean programen artxiboak, Kirol eta albistegien programak, grabazio originalak, agentzien materiala,igorpenaren kopiak (VHS) eta material historikoa edo artxiboko irudi esleituak aurki ditzakegu.

Aurrekoa kontuan hartuta, RTVE-REN dokumentazio zerbitzuak atal hauek ditu :

- Servicios Informativos de TVEren dokumentu zaharrak
- Centros Territoriales TVE ren dokumentu zaharrak
- Programen filmoteka
- Programen bideoteka

- Servicios Informativos de TVE ren fototekan dauden dokumentuak
- Programen fototeka
- FRANZEN argazkien artxibo historikoa.
- NODO artxibo historikoa
- PUEBLO egunkariaren fototeka eta prentsa artxiboa
- TELEDIARIO aldizkariaren fototeka eta prentsa artxiboa
- Casa Real eta Presidencia del Gobierno segurtasun artxiboa.

Etb-ren kasuan 3 ataletan banatzen da: Hemeroteka, bideoteka eta fonoteka. Hemerotekaren iturrien artean liburutegiak, prentsa artxiboak eta hemerotekak aurki ditzakegu. Bideotekan, aldiz, ETBren emisioak eta, batez ere, ETBk produzitutako saioak gordetzen ditu, eta albistegiak eta etxeko produkzioen tratamendu dokumentala egiten du. Bideotekak gainera, nahi duenak materiala eskura dezan arreta zerbitzu bat du. Fonotekan, berriak, formatu ezberdinetako entzunezko materiala eskaintzen da.

Dokumentazio zerbitzuak koordinatzaile moduan jokatzeko unitate bakoitzaren ekintzak sustatuz, koordinatuz eta hauei koherentzia emanez. Honen helburua politika dokumental homogeneo bat lortzea izango da.

Dokumentazio zerbitzuarentzat oso garrantzitsua den ekintza mantenuari dagokiona da. Horregatik, etengabe aldatzen dira formatu zaharretan dauden bideoak beste formatu berri batzuetara. Aldaketa honen helburua dokumentu hauen mantenua zihurtatzea da eta hauek segurtasun artxibo batean mantentzen dira Gobernuak, korteetako eta Estatuko buruzagi nagusiari dagozkien entzunezko eta ikus-entzunezko dokumentuekin batera.

Etb-ko dokumentazio zerbitzuak ere garrantzia handia ematen dio dokumentuen mantenuari. Zaharkitzen diren formatuak beste berri batzuetara aldatzen dira baina hau, ordea, ez da etengabeko lana. Etb-k denbora jakin bat pasatzen denean formatu hauek aldatzen ditu, TVE-k aldiz, lan hau maizago egiten du; batez ere dokumentu gehiago dituelako.

Artxiboen kontserbazioa hobetzeko, bi gordelekutan gordetzen dira, Miramonen bat eta Iurretan bestea, hezetasun eta tenperatura baldintza aproposetan. Era berean, zintarik zaharrenak formatu digitalera pasatzen ari dira ondo kontserbatzeko helburuarekin.

Garrantzi handiko beste ekintzetako bat ikus-entzunezko dokumentuen hedapen eta ustiapena da. Erakundeak gainera, dokumentuen hedapen eta ezagupen handiago bat eskaintzen duten katalogo monografikoak (musika, geografia eta bidaiak, ohiturak eta tradizioak eta abar) editatzen ditu.

Azkenik, Dokumentazio zerbitzuak (aurreko arauak kontuan harturik) RTVE-ko langileen prestakuntzaz arduratzen da. Prestakuntza honetan, RTVE-ko Instituto Oficial de Radio y Televisión-ek hartzen du parte.



## ***RTVE-ren DOKUMENTAZIO ZERBITZUAREN EGITURA:***

Antolaketa-aren ikuspegi-erakundeak bi zerbitzutan dago banatuta :

**-Tratamendu Dokumentalaren Zerbitzua:** TVE-k emititutako dokumentuen analisia-aren arduraduna da. Era berean, dokumentuen datu baseen mantenu eta antolaketa ere bere esku dago.

Dokumentuen tratamendua ( edukien analisia eta indexazioa, katalogazioa eta ikuspena) lehenengo gehigarriko datuetara moldatzen da. Zerbitzuak bere thesaurus propioak sortu ditu eta bigarren eta hirugarren gehigarrietan kirolen eta lekuen adibideak aurki ditzakegu.

Etb-ere bere thesaurus propioa duen arren, TV3ren thesaurusaren egokitzapen bat besterik ez da. Erabiltzen den hizkuntza gaztelania da eta sarrera batzuk euskaraz ditu (gehienak geografi sinonimoak). TVE-ren thesaurusak, logikoa den moduan gaztelaniaz idatzia dago.

Etb-ko thesaurusak 13 000 terminok osatzen dute (3500 deskribatuzile tematiko, 2500 geografiko eta 6000 pertsonal). TVE-ko thesaurusak dituen deskriptore kopurua ez dakigu zenbatekoa den baina 13000 baino gehiago izango direla uste dugu.

Dokumentu baten analisia-aren emaitza eta bere erregistroa datu baseetan dokumentu-aren ezaugarrien arabera aldatuko da. Honi buruzko adibide ugari daude 4. eta 8. gehigarrietan.

Aipatzeko moduko datu bat iruditzen zaigu zerbitzu honek 15 000 dokumentu inguru tratatzen dituela urtero eta 7000 ordu ematen dituela formatu desberdinetan dauden dokumentuak ikusten.

**Hedapen eta mantenuaren Zerbitzua:** Zerbitzu hau barneko eta kanpoko kontsultetaz, zerrendaren eta eskatutako materialei buruzko katalogoen edizioaz eta ikus-entzunezko materialen artxiboen antolakuntzaz arduratuko da.

Euskarri, formatu eta edukien aniztasuna eta azken urte hauetan ikus-entzunezko materialen ekoizpen bideetan eta informazioa gordetzeko bideetan egon diren aurrerapen teknologiko azkarrek dokumentuen tratamendu eta mantenu politikan koordinazio gradu altua eskatzen dute. Halaber, erabilitako euskarriaren arabera denbora pasa ahala hondatu diren dokumentuek ere koordinazio gradu altu bat eskatzen dute.

Artxiboen antolaketa GMS (Gestión de Material Sensible ) eta berezko diseinua duten datu baseen bidez aplikatzen da ; eta ekoizpen, banaketan eta RTVE taldearen emisioen bidez koordinatzen da. Sistema honetan oinarriko datu katalogafikoak kontsultatzen,

artxiboko oinarritzko materiala aurkitzen eta hauen mugimenduak, sarrerak eta irteerak antolatzen dira.

Prozesu dokumentalen katalogazio eta datuen berreskuratzean SIRTEX sistema (Sistema Integrado de Recuperación Textual ) erabiltzen da .Datu hauek berreskuratzeke beste era bat ere badago ; ISIS sistemaren 3,07 bertsioa erabiltzen duten lan base desberdina, alegia. (UNESCO,1993).Etb-k bideoak katalogatzeko, ordea bi sistema erabiltzen ditu:lehena Oraclen onarritua eta bigarrena datu base bat erabiltzen duena.

Dokumentazio zerbitzuko artxiboan milioi erdi ikus-entzunezko dokumentu baino gehiago daude. Bi taldetan banatuta daude dokumentu hauek: filmeak (230 000 lata) eta bideoak (30 000 zinta).

Etb-ko dokumentazio zerbitzuko artxiboan dokumentu gutxiago aurki ditzakegu.Artxiboan dauden dokumentuen kopurua handia izan arren,TVE-k baino dokumentu gutxiago ditu:100 000 dokumentu inguru,alegia.

Euskarri hauek teknologiaren hedapenaren ondorioz beste bi azpitaldetan banatzen dira(16mm, 35mm eta 70mmko zintak) eta(2'', 1'', Umatic, Betacam analogikoa eta digitala, HDTV eta digitalak D2 eta D3).

Etb-n, berriz, 170.000 zinta gordetzen dira formatu desberdinetan: VHS, S-VHS,  $\frac{3}{4}$  UMATIC, BETACAM, BETACAM\_SP, BETACAM DIGITAL.

Biltegi hauetan 155 000 telebistako programa (25 000 film euskarrian eta 130 000 filmatutako albiste) daude.

TVEko ekoizpenen artean ikus-entzuleak identifikatzen diren saio eta telesaiak, bere historia gertuenaren parte direnak, besteak beste ,hauek dira: Berezko ekoizpeneko dokumentalak(España siglo XX, El hombre y la tierra), telebistako gidoiak (Cronicas de un pueblo, historias para no dormir), literatura unibertsaleko klasikoen telebistarako adaptazioak (El conde de Montecristo), zine produkzio erraldoien forma dutenak (Fortuna y Jacinta,La Regenta), eztabaida eta parte-hartze saioak (un, dos , tres), haurrentzako saioak(un globo, dos globos) ,genero guztietako musikalak (flamenkoa, kontzertuak..) eta telebistaz ematen diren gertaera historiko, kirol eta kultur ekitaldiak.

Etb-k,aldiz, ez du berezko produkziorik baina emititzen diren hainbat saio eta telesaik sekulako arrakasta izan dute eta izaten jarraitzen dute.Hauek dira horietako batzuk:Telesaiak( Goenkale,Martin,Hasiberriak),haurrentzako saioak, ( Super1,Betizu),lehiaketa saioak,(Date el bote,El rompecabezotas),umore saioak,(vaya semanita,wazemank)eta reality showak(El conquistador del fin del mundo,basetxea).

Zerbitzu honetan urtean informazioa edo irudiak bilatzen dituztenekin 13 000 kontsulta egiten dira.Horietatik 4 000 saioen ekoizpenei dagozkie eta beste 9 000 Direccion de Operaciones Comerciales –en bidez egiten dira.

Espezializatutako dokumentazioak eta itzulpenen unitateak komunikazio, irrati, telebista eta abar-etan espezializatutako artxibo testualen antolaketaz arduratuko da. Era berean, artxibo honen hedapena errazten du “dokumentuak” izeneko seriearen bidez. Serie honetan aldizkari espezializatueta argitaratutako artikuluen itzulpenak aurki ditzakegu.

**NODO artxibo historikoa:** Nodo artxibo historikoaren jardura 1943tik 1981era arte burutu da. Urte honetan erakunde hau batez ere RTVE-ren zerbitzura egongo den Centro De Producción de Programas Institucionales-en bihurtuko da.

Artxibo hau hein handi batean Joaquin Costa eraikinean aurkitzen da eta zatirik txikiena Agendako artxiboan. Dokumentuak era honetara banatzen dira:

**-Zinemagintzari buruzko albistegiak:** 1943 eta 1981 artean 4016 emanaldi ekoiztu ziren; batz besteko 10 minututako iraupenarekin, astean behin eta askotariko edukiarekin.

**-Irudiak:** 1216 titulo ekoiztu ziren 1945 eta 1968 artean 10 minutuko batez besteko iraupenarekin, astean behin eta askotariko edukiarekin.

**-Kirol irudiak:** 88 titulo; batez besteko 10 minutuko iraupenarekin, koloretan, aldizkakotasun aldakorrarekin eta kirol bati buruzko eduki monografikoekin.

**-Dokumentuak eta edizio bereziak(BN):** 216 titulo; iraupen eta aldizkakotasun aldakorrarekin eta askotariko edukiarekin.

**-Koloretako dokumentuak:** 498 titulo; iraupen eta aldizkakotasun aldakorrarekin eta askotariko edukiarekin.

**-Koloretako artxibo orokorra:** Gehiengoa 35mm-tan dago eta eduki askotariko materialak ditu.

**-Publikatu ez diren Espainiar albisteen artxiboak:** Estatuko gaiei buruzko askotariko materiala du.

**-Publikatu ez diren atzerriko albisteen artxiboak:** Atzerriko gaiei buruzko askotariko materiala aurki dezakegu.

**-Artxibo erreala:** Errege-etxeari buruzko 1903-1930 bitarteko materialak ditu.

**-Aukeratutako planoen artxiboak:** Plano adierazgarriak ditu.

**-Musika artxiboa:** Telesaietan erabilitako soinuak ditu.

**-Askotarikoak:** Askotariko materiala dago bertan( 70.hamarkadako espainiarrak, gai politikoak..)

## ERANSKINA (Katalogazio dokumentua)

Dokumentazioan aritzen direnek zama astuna izaten dute produkzioaren bat artxibatzean. Telebista saioak ez dira grabazio eta emisio soil batzuk beraz; agiri eta katalogazio arduradunek, formatu ezberdinetan grabazioen kopiak egiten dituzte hauek etorkizunean kontserbatu daitezzen. Horrela izanda, beharrezkoa dira grabazioen datu fitxak.

Langile bakoitzak, batez bestez bost ordu behar izaten ditu katalogatze prozesurako beharrezko den fitxa bakoitza betetzeko. Digitalizazioarekin lana automatizatu egingo da, baina lehen esan bezala, momentuz ez daukate lana eskuz egitea besterik.

EiTBkoek Television Española kateak erabiltzen duen katalogazio sistema antzekoa erabiltzen dute. Hona hemen Espainiako kate publikoak ikusentzunezko materialak artxibatzeko betetzen duten fitxa:

*Television Española*



tve

CENTRO DE DOCUMENTACIÓN  
SERVICIO DE TRATAMIENTO DOCUMENTAL

PROGRAMA  
DOMINIO

P A N

REF C D E P | \_\_\_\_ | \_\_\_\_\_ |

Uni.trat. dom número FENT

\_\_ / \_\_ / \_\_

año mes día

CONTROL C D E P \* \_\_ \* | \_\_ | \_\_ | \_\_ | \* | \_\_ | \_\_ | \_\_ |

niv. Documentalista entrada EXPURGO

Orriaren atal honetan,  
emittutakoaren datu  
kronologiko eta  
metadatuak agertzen dira.

\_\_/\_/\_\_\_

año mes día

SIG .

TIT .

TICAT .

SERIE .

SERCAT .

AUTOR .

PAÍS .

DIR .

INT .

FENOT

e

\_\_/\_/\_\_\_ \* \_\_/\_/\_\_\_

año mes día      año mes día      DUR

\_\_\_\_\_

hora min seg

DES FIS 16mm \_\_\_ 35mm \_\_\_ 2pulg \_\_\_ 1pulg \_\_\_ 3/4pulg \_\_\_ Media pulg \_\_\_

Umatic \_\_\_ Betac \_\_\_ Dig \_\_\_ PALplus \_\_\_ HD \_\_\_ HB \_\_\_ neg \_\_\_ pos \_\_\_ col \_\_\_ BN \_\_\_

Muda \_\_\_ sepmag \_\_\_ comopt \_\_\_ commag \_\_\_ natsof \_\_\_ loc \_\_\_

Vers \_\_\_\_\_ m \_\_\_ min \_\_\_ seg \_\_\_ c \_\_\_ r

Lab proc \_\_\_\_\_ estado \_\_\_\_\_

PROD .

LUGPROD .      FEPROD .

EMI no emitido \_\_\_\_\_ 1cad \_\_\_\_\_ 2cad \_\_\_\_\_

fecha

\_\_\_\_\_ H

comienza el      termina el      hora

\_\_\_\_\_

periodicidad      día sem.      espacio

FEMI \_\_\_\_\_ \* \_\_\_\_\_ año mes día

año mes día

Hemengo hauek ere datu teknikoak dira eta produkzioaren jatorriaren eta zuzendaritzaren berri ematen digu besteak beste.

Datu hauek grabazio sistemen berri ematen digute (erabili den kamara, erabili den formatoa...)

## 1.4.-THESAURUS ASKEA

ETB-k interneten bidez dokumentazio zerbitzu berezi bat eskaintzen du. Google-n bidez thesaurus bat aurkitu dugu sarean, bere zerbitzuak gaztelanieraz, ingelesez, frantsesez, portugesez eta alemanieraz eskaintzen dituena. Lehenengo thesaurusa AEBetako ASTIA-k (Armed Services Technical Information Agency) sortu zuen, 1966an. Thesaurusak dira lengoia dokumental garatuenetarikoa: deskriptore-zerrendak dituzte oinarrian, baina zerrenda horiei harremanak gehietzen dizkiete. Deskriptoreen ingurune semantikoa adierazten dute, eta, hala, deskriptoreen zehaztasuna zenbaterainoko den hobeto jakin ahal dugu, eta deskriptore batetik bestera mugitzea ere, indexazioan zein informazio bilaketan, errazagoa da.



Iurretako egoitzaren kanpoaldearen ikuspegi bat

Deskriptoreen arteko harremanak hirutan bana daiteke. Baliokidetasun- harremanak termino baliokideek onartutako deskriptore batera bidaltzen dute. Bi motatakoak izatendira: sinonimo linguistikoak eta sinonimo dokumentalak. Sinonimo linguistikoek deskriptorearen esanahi bera dute; hala, kontzeptu bat adierazteko diren termino desberdinak deskriptore bakar baten bidez adieraziko dira. Baina thesaurusetan sinonimiaren zentzua zabaldu egiten da, sinonimia dokumenalaren bidez deskriptore bakar baten barruan termino hurbilak biltzen baitira, nahiz eta esanahia desberdina izan. Baliokidetasun-harremana *ikus* eta *ordezkaturia* oharrekin adierazten da. *Ikus* markak, onartzen ez den termino batetik deskriptorerara bidaltzen du; eta *ordezkaturia-k*, deskriptoreak ordezkatzeko dituen terminoak adierazten ditu. Harreman-hierarkikoak

deskriptore orokorrageok deskriptore zehatzagoak biltzen dituzte. Harreman honek ere zentzu bikoitza du, eta *termino zehatza* edo *orokorra* oharren bidez adierazten da.

Thesaurus gehienek, interesatzen zaien disziplina arlotan sailkatu ondoren, gaika banatzen dituzte deskriptoreak. Banaketa nahiko subjektiboa izaten da; horrenbestez, gerta daiteke disziplina bereko bi thesaurusen banaketa desberdina izatea. Beste thesaurus batzuek, ordea, funtzioak erabiltzen dituzte: nahiz eta abstraktuagoa izan, terminoak zuhurtasun handiagoz sailkatzen dira.

Hurbiltasun-harremanak harreman zabalenak dira, lotura semantikoak, hierarkikoak edota bakiokidetasunezkoak adierazteko erabiliak. Deskriptore batzuetatik beste batzuetarako pasabidea errazten dute, baita familia semantiko desberdinen arteko ere, eta bilaketa zabaltzeko erabiltzen dira. Batzutan polihierarkia sahiesteko erabiltzen dira.

Thesaurus bat osatzen hasi baino lehen, thesaurus horren testuingurua zehaztu behar da, zehaztu behar da zein izango den bere arlo semantikoa, zer indexatuko duen eta zer sistema dokumentalen barruan erabiliko den. Hiru metodo daude thesaurusa osatzeko:

Lehenengo metodoa induktibo edo sintetikoa da, lehendik dauden disziplina horretarako hiztegiak, indizeak, eskuliburuak, erreferentziako lanak eta abar bildu eta hortik thesaurusen terminologia jasoko da. Bildutako terminologia arlo semantikotan baantuko da.

Arlo bakoitzeko terminologia aztertuko da, sinonimoen edota sinonimo dokumentalaren bila. Horrelakorik egonez gero, deskriptorea zein izango den erabakiko da, eta besteak termino baliokide bihurtuko ditugu. Gero, termino bakoitzaren esanahia aztertuko da, eta, garbia ez bada, beharrezko oharrak osatuko dira. Ondoren, harreman hierarkikoak eratuko dira eta, azkenean, hurbiltasun-harremanak, arlo bereko zein arlo desberdineko deskriptoreen artean.

Bigarren metodoa deduktiboa edo analitikoa da, hau azertu diren dokumentuen lagin errepresentatibo bat osatuko da. Gero, dokumentu horiek indexatuko dira lengoia askean, eta hortik lortutako indizeek osatuko dute thesaurusaren terminologia. Hori burutu ondoren, aurreko metodoan adierazitako pausoak segituko dira.

Hirugarren metodoa bitariko metodoa da, aurreko biak erabiltzen ditu oinarritzko terminologia lortzeko.

Thesaurus baten kalitatea, dituen terminologiaren eta harremanen erabilgarritasunean datza. Tresna bizia da, eta eguneratu behar izaten da. Horretarako erabiltzen ez diren deskriptoreak kendu eta zehatzegiak direla- eta gutxitan erabiltzen direnak deskriptore orokorrageotan bildu egiten dira; halaber, orokorregiak direla-eta gehiegi erabiltzen diren indizeak zehaztu eta indize berriak sortu, informazioa bilatzeko erraztasun ematen duten baliokideak gehitu, eta kontzeptu berriak adierazteko deskriptore berriak sortu egiten dira.

ETB-k thesaurus hau sortu zuen 2006ko apirilaren 6an, bere lengoai mota thesaurus egituratua da. Bere estaldura European Treasury Browser-ra da, RTF-ren bertsio espainiolaren prozesamendu automatikoaren erreproduzioan oinarritzen da. 1477 termino ditu, 1546 terminoen arteko erlazioak eta 300 termino ez hobetsiak.

Thesaurusa bi modutan aurkezten da: zerrenda sistematikoan eta zerrenda alfabetikoan. Zerrenda sistematikoari dagokionez, ETB-k ez du thesaurus honetan Sistema Hamartar Unibertsala jarraitu, berezko sistema sortu du. Adibidez, SHU-ean 02 zenbakia bibliotekonomia edo bibliotekologiari dagokio, ETB-ko thesaurusean ikaskuntzari eta ikerkuntzari dagokio. Gero badauka beste termino batzuk aldaketa soziala edo kritika bezala alfabetikoki kokatuta egon arren zenbakien bidez egituratua ez dagoena.

Sistema alfabetikoari dagokionez, alde batetik, alfabetoko hizki guztietatik hasten diren termino guztien zerrenda kontsultatzea eskaintzen du. Beste aldetik, 0 eta 1 zenbakiez hasitako terminoak zerrenda sistematikoan kontsultatzeko aukera ere ematen du. Lehengo hizki horri dagokion terminoen zenbakia agertzen da hizki hori klikatzerakoan.

Bilaketarako bi sistema honetaz gain badago bilatzaile ohiko bat, zuk nahi duzun terminoa sartzan duzu eta thesaurusan erregistratua baldin badago gordeta daukan informazioa erakusten dizu. Erabiltzaile bezala erregistratzeko aukera ere baduzu helbide eta kode bat erregistratuz.



Iurretako egoitzako harreralekua



## **2.-BISITA-TXOSTENA** **(EITB, IURRETA)**

### **-Irudiak/audioa/informazioa-**

ETBn hemeroteka fonoteka eta bideoteka bisitatu genuen, eta bakoitzean zer egiteko dauden azaldu ziguten. Azalpenekin amaitzean, dokumentazio arduradunak Iurretatako instalazioetatik gure kabuz ibiltzeko aukera eskaini zigun eta baita, albistegiak (Gaur Egun eta Teleberri) egiten diren platoa eta errealizazio gela ikusten utzi ere.



Hemerotekan aldizkariak eta egunkariak gordetzen dituzte, eta orain digitalizazioaren kontuarekin, artikulua askok eskaneatu eta ordenagailuetan gordetzen dituzte.

Fonotekan estilo guztietako cd-ak dituzte, baita informatiboetan eta hainbat programetan entzun ditzakegun soinuak ere, binilo diskoak ere bazituzten, baina gaur egun ez dituztela erabiltzen esan ziguten, gainera horietako batzuk, bermasterizatutak daudenak cd-tan ere dauzkatela esan ziguten, eta ez hori bakarrik, hainbat abesti eta soinu ordenagailuetan gordeta dauzkatela esan ziguten. Fonotekako lana burutzeko pertsona bakar bat dagoela esan ziguten baita ere.

Bideotekan (nagusiena) bideoak Beta formatuan dauzkate, azken urteetan ETBk edota ETBrentzat egindako programak daude, baita iragarki batzuk eta erositako pelikulak eta serieak ere. Hala ere, Betan dauden zinta horietako askok dagoeneko digitalizatuak daude eta beste askok ere digitalizatzeko zain daude.

Funtsei dagokienez, bertan biltzen dira etxean zein kanpoan ekoiztutako emisio saioak, albistegiak eta kirol-saioken editaien konpaktazioak, jatorrizko grabazioak (masterrak), nazioarteko agentzietako eta FORTAko (Espainiako kate autonomikoen elkarte) materiala, emisioaren kopia juridikoa eta material historikoa, erositakoa edo lagatakoa.

Egun, informatiboak adibidez zuzenean digitalen grabatzen dituzte eta hauen moduan, publizitatea ere zuzenean ordenagailutik botatzen dute, programak ordea, analogikoan grabatu eta gordetzen dira oraindik. Beraz gaur egun EITBk digitalen eta analogikoan egiten du lana, trantsizio garraia bizi dira EITBkoek. Oraindik asko falta da sistema osoa digitaletan funtzionatzeko nahiz eta orain dela 2 urte hasi zirela lan egiteko modua aldatzen.

Katalogoaren datu basearen bitartez bideo guztien informazio “fisikoa jakin daiteke, hau da, bideoaren zenbaki kodea, non aurkitu dezakegu... Honi esker bideo guztiak non dauden jakin daiteke, norbaitek dauzkan, Donostiara (Miramon) bidali badira edo bideoetikan dauden jakin daiteke. Base datu hau, beraiek, ETBkoek sortutakoa da.

Horrelako datu baseetan dokumentalista ez dela mugatzen dokumentuaren deskribapen fisikora (bideoaren zenbaki kodea, kokapena etab.): haren edukiari buruzko informazioa ere sartzen du, eta laburpenak baliatzen ditu horretarako.

Datu base dokumentala ordea, erositakoa da, Oracle datu base sistemarekin egina dago eta 3 datu base dira, generoetan bananduta, bestela ezinezkoa izango zelako bideo guztien informazioa gestionatu. Datu base dokumentala, aurrekoa baino informazio gehiago ematen digu, dokumentalean adibidez bideoaren laburpen txiki bat, egileei eta aurkezleei buruzko informazioa, eta bideoaren iraupena zein den ere jakin dezakegu. Katalogoaren datu basearen hobekuntza da, informazio gehiago ematen digu.

Datu base honetan (dokumentala) gaztelaniaz egiten dira bilaketak baina esan zuenez, lanean ari dira bilaketak euskaraz ere egin ahal izateko.



Ezkerraldean Jesus Anderez Iurretako artxibategiaren deposituan (material editatua zein editatu gabekoa gordetzen da: 140.000 bideo zinta inguru). Eskuman Miramonen dauden gurdi higikariak (Argazkiak Koldo Eizagirrek ataratakoak izan dira eta Anderez berak bidali dizkigu)



*Euskarrien jausi kualitatiboa*

Orain arte euskarriak gordetzea (alegia, zintak eurak) zela lehentasun dokumentazio zerbitzuetan, eta ez horrenbeste edukiak berreskuratzea. Aro digitalean, ordea, gauzak aldatu egin dira: euskarri fisikoan (zintetan) baino, ordenagailu barnean gordetzen dute informazio, datu-zintetan; hau da, fitxategiak orain gordetzen direla errazago ikusteko eta transferitzeko moduko formatu digitaletan. Ondorioz, dokumentalistek orain ez dute joan behar bideo zinta fisikoaren bila digitalizaturiko informazio jakin bat berreskuratu behar dutenean, ordenagailuko datu basetik bertatik berreskura dezaketelako. Ondo esana duzuen moduan, dena dela, oraingoz EITBn material ugari (gehiena) bideo zintetan gordetzen segitzen dute, baina duela bi urte albisteak digitalean gordetzeari ekin zioten.

### *Egile eskubideak*

Artxiboko irudiak erabiltzeko mugak daude: produktorearen eskubideen edota copyrightaren jabearen arabera. Barne produkzioko produktuekin ez dago arazorik; kanpo produkzioko produktuei dagokienez, 10 edo 15 segunduko *korteak* sar daitezke, aipu-eskubidearen barruan sartzen delako hori, baina eremu irristakorra da, sarritan *korte* luzeagoak ere baliatzen dituelako jendeak. Era berean, pertsonen irudiak kontu handiz erabili behar dira, batez ere irudiok jatorriz grabaturiko testuingurutik kanpo eman nahi badira eta albiste eta egoera negatiboekin zerikusia badaukate (gaixotasunak, drogamenpekotasuna, alkoholemia, istripuak...).

## **2.1.-EITB-ko DOKUMENTAZIO ZERBITZUARI BURUZKO SEKRETUAK 6 GALDERATAN**

---

- **Zelan moldatzen dira tresna horien bidez informazioa bilatzeko? Adibidez, aurkezle jakin bati buruzko edo programa bati buruzko informazioa berreskuratzeke?**

Sistemaren arabera, erabiltzaile guztiek ezagutzen dituzten hainbat ezaugarri ezartzen dira, kontraesanik edo arazorik gerta ez dadin. Izaro Iraetak egindako programak bilatu nahi baditugu, ahal bezain eremu (*campo*) gehien bete behar dira. Eremu horiek hauek dira: izenburua, data, lekua, eta horrelakoak. Zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta errazagoa izango da topaketa, alegia. Eremu bakarra ezagutzen badugu (Izaro Iraeta izan zela aurkezlea, esaterako), aukerak murrizten joan beharko dugu. Zerrenda luzea azalduko zaigu, eta sailkapena egin beharko dugu: norekin, noiz, non... Bideoek duten informazioa minimoa da: bideo berrietan sekuentziaka egiten dira azalpenak, baina zaharretan ez.

- **Bilaketetan erabiltzen duten hizkuntza, kontrolatua ala kontrolik gabea da? Sinonimia eta enparauekin zer gertatzen da?**

Hizkuntza gaztelania da. Ez dute euskararik erabiltzen. Orain sistema berri bat martxan jarri omen dute: sistema horren bitartez euren tresnak euskaratu nahi dituzte. Ispilua izango balitz bezala (ea ondo azaltzen dudana): datu basearen kopia izango litzateke, automatikoki euskaratzen duena. Horrela, ez dute zertan ordu pila pasa behar den-dena euskaraz egiteko.

ETBn pluralean idazten dituzte lekuak eta antzekoak; adibidez: *panaderia* erabili beharrean, *panaderias* bilatuko da, eta horrela azalduko zaizkigu etiketa hori daramaten dokumentu guztiak.

Termino orokorrak nahi baditugu, Tesauroarekin aritu beharko gara: *autocar* bilatu ordez, *transportes* bilatuko genuke. Tesauroak arbolatxo bat marrazten duelako: termino globaletik konkretuetara.

Sinonimoak aurrez konfiguratuta baldin badaude, sistemak identifikatzen ditu. Adibidez, datu basean *autocar* eta *autobus* sinonimoak direla zehaztu badugu, horietako bat bilatzean, bi hitzekin lotuta dauden dokumentuak zerrendatuko zaizkigu.

- **Zein maiztasunez bisitatzen dute *Vaya Semanita*-koek (adibide bat jartzeagatik) dokumentazio-zerbitzua?**

Dakigun bezala, *Vaya Semanita* eta antzeko programek egiten dituzten erreportajeetan hainbat bideo azaltzen dira nahastuta. Hori lortzeko ordu asko behar izateaz gain, bideo pila behar da. Egunero joaten dira programa horietako langileak dokumentu eske. Etengabe behar dituzte bideoak eta 20 baino gehiago eskatzen dituzte egunean (garrantzitsua da gidioa prestatzea, erotu nahi ez badugu, behintzat).

- **Zer gertatzen da gisa horietako programekin edota *zapping* programekin? Zertan dira egile eskubideak barne zein kanpo produkzioari dagokienez?**

Horrenbeste bideo erabiltzen dituzten bideoek mugak dituzte kanpo ekoizpenetan, nahiz eta guri ez iruditu. Barne ekoizpenetan ez dago arazorik, ETB bada jabe, nahi adina erabiliko ditu dokumentuak, zeinek debekatuko dio ba?

- Kanpo produkzioetan, bideo eta produkzio bakoitzeko, ezin dute 10 segundu baino gehiago erakutsi. ETBk filmen egile eskubideak erosten dituenean, behin emititzeko baimena du, ez gehiago. Film hori berriz ere bota nahi badu, egile eskubideak berriz ordaindu beharko litzuke. Sekulako negozioa omen dago egile eskubideen eta tokiko telebisten atzean, baina ez gara horretaz arituko. Kontua da, nahiz eta *zapping*eko programek edo *Vaya semanitakoek* bideo horiek emititu nahi, legea errespetatu behar duela: 10 segunduko zita, asko jota.
- **Zertuk aldaketa nagusi ekarri ditu digitalizazioak dokumentazio zerbitzura? Zer gertatzen da, adibidez, albistegiaren duela 2 urtetik hona?**

Digitalizazioak sekulako diru-irteera dakar, Jesusek argi utzi zuen bezalaxe: dokumentu guztiak digitalizatu nahi badira, langile asko kontratatu beharko liriateke urtetan. Aldaketak espazio fisiko aldetik dira nabarmenenak: hainbat balda eduki beharrean, zerbitzari potentek behar dira. Horrek lanean aritzekoan erraztasunak ere baditu, zerbitzari batean gordeta beti ditugu dokumentuak "eskura". Beti da ona biziberritzea. Arazoa zenbait formaturekin dator: hainbat zinta, marka berdineko aparatuetan bakarrik

ikus daitezke. Esate baterako, Sony zinta Sony irakurle batekin bakarrik ikusiko dugu. Beraz, informatibo zahar guztiak digitalizatu nahi baditugu, hau da, ordenagailura pasa nahi baditugu, formatu bakoitzeko aparatu bat beharko genuke, eta makina horiek ez dira batere merkeak.



1982-2007

Eitb prest dago etorkizuneko erronka teknologikoei aurre emateko. Denborarekin bere irudia aldatu du.

- **Material editatua ala editatu gabea gordetzen dute dokumentazio zerbitzuan? Zenbat bideo zinta dituzte orotara gordeta?**

Materiala editatua da gordetzen dute; hau da, dokumentu edo bideo bakoitzeko VHS bat behar balute, sekulako espazio fisikoa izango litzateke beharrezkoa. Horregatik, hainbat dokumentu sartzen dira Betacam zinta batean, leku gutxiago okupa dezaten. Oker ez banabil, Betacam bakoitzak bazuen 3 VHS gordetzeko adina leku.

Beste ediziorik ez da egiten, programa emititu bezalaxe gordetzen da. Edizioak egingo ditu bideoa behar duenak, baina ekoizpen propioa izango litzateke, ETBk dokumentu originalak gordetzen ditu.

Zenbat bideo zinta? Ezingo nuke zehaztu, baina 100.000 baino gehiago. Iurretako ETBk egindako ekoizpen propio guztiak gordetzen dira bertan (gehienak informatiboak); beraz, egin kontu.



Jesus Andrez (Eitb) eta Tedd Johansen([NRK](#)) norvegiarra Mexikon ospatu zen hitzaldi baten atsedenean

## 3.- EITB & Internet Beste dokumentazio modu bat

Interneti dagokionez, neurri ezberdinak daude. Gaur egun erabilienetakoa den baten arabera, EITBren web orrialdea Estatu espainiarreko beste telebista autonomiko batzuen aurretik dago egiten den kontsulta kopurua kontuan hartuta. Alexa izeneko rankingean - mundu mailan egiten da, eta webgune bakoitzak jasotzen dituen bisiten arabera eginda dago zerrenda- EITBren web orrialdea 39 milagarren postuan ageri da, Galiziako telebisten ondoren eta beste telebista autonomiko guztien aurretik.

EITBk Interneteko edukiak gehitzen jarraitu du, eta 2006. urtean 4 milioi erabiltzaile berezira eta 50 milioi orrialde bistaratura heldu da.

Gauza berrien artean, azpimarratzekoa da “betizu. com” webgunea goitik behera berriztu dela, eta taldearen lehen blogak ireki direla.

### Pauso erraldoiak sarean



[www.eitb.com](http://www.eitb.com)

Taldearen webgune bateranoena da eta entretenimendua du ardatz nagusi. Besteak beste, parte hartzea zabaltzen duten edukiak (jokoak, foroak eta blogak...) eta EITBren programazioari eta eguraldiari buruzko informazio osotuena nabarmendu behar dira.

[www.eitb24.com](http://www.eitb24.com)

Código de campo cambiado

Albisteak. Eguneko 24 orduetan berrituta. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, eta aurki frantsesez. Bestalde, esan beharra dago, eitb24.com-eko infografiak hainbat sari jaso dituztela mundu mailan.



*Geoff McGhee New York Times egunkariaren multimedia arloko arduraduna eitb.com-ek albisteen eta informazioaren euskal kanalak, azaroaren 15ean Interneti buruz Guggenheim museoan antolatutako jardunaldian*



- Código de campo cambiado**
- Con formato:** Inglés (Estados Unidos)
- Con formato:** Inglés (Estados Unidos)
- Código de campo cambiado**

EiTB Taldeko irratik gazteenaren webguneak itxura aldatuko du ondorengo hilabeteetan. Zure gustuko taldeak, musikarik onena, bideoklip berrienak, zinema arrakastatsuenak, jokoak, lehiaketak... Zuk nahi duzun guztia egaztea.com-en. Egaztea seinale ON, Egaztea ON line.

EiTB Taldeak hurrei zuzentzen dien kanala da, 3 eta 14 urte arteko umeei eskainitakoa. Irudi ikusgarri eta deigarrien bidez, webguneak eduki ludikoak, didaktikoak, berritzaileak eta kalitatezkoak eskaintzen ditu. Euskal Herriko ume guztien elkargunea da betizu.com.

**Jump TV – Canal Vasco**

*Aurten hasita, Jump TV Interneteko plataformak Canal Vascoren telebista seinalea emititzen du. Urrats bat gehiago da, geure zerbitzua munduko euskaldun guztiei eramateko bidean.*

Interneten ere talde bakar bat dago, gure bi webguneak lantzeko. Guztira, EiTBren barruan 261 erredaktore eta laguntzaile ari da kazetaritza egiten. 141 telebistan, 101 irratietan eta 19 Interneten.


6

**1. Grafikoa: EiTB taldeko albistegietako erredakzio taldeak**  
**Iturria: EiTB**

**ERREDAKZIOA**  
**ZENBAT LAGUN**

- Etb* 141
- Radio Euskadi* 48
- Euskadi Irratia* 40
- Radio Vitoria* 13
- EiTBnet* 19

**GUZTIRA**



Iturria/Fuente: 2002-2004 datuak "Webtrends" / 2005-2006ko datuak "OJD". 2006ko datuak: azarorarte. Sumatorio año usuarios únicos mensuales.



# Ondorio praktikoa

Azkenean hegan egin du. Sortua izan zenean etorkizun arrakastatsua izanen zuela gutxi espero bazuten ere, esaten den bezala, egun usteak erdi ustel geratu dira eta gure herri txiki honi eskaini dizkion aurrerapauso sozio-politiko eta ekonomikoak baloraturik geratu dira.

Argi dago oraindik bide luzea duela igarotzeko, argi dago baita gaurgeroko hurbil horretarako prestatzen hasia dela. Euskal irratia Telebistak laurogeigarren hamarkadan zuen irudia baztertu nahi izan du eta apurka-apurka digitalizazioaren jantziak estaltzen hasi da.

Behin itxaropenik izan ez zutenak ostera ere berdin jardun daitezke, berrito ere txutxumutxuan gure kate gaztea uste txarrez kutsatzen, baina lan hau burutzen ari garenok behintzat, 25 urte hauotan lortu izan dituenak lortuta, aukera bat eman behar diezaiokegula deritzagu, izan zena ez delako eta izango dena ez delako.



# BIBLIOGRAFIA

Lan hau garatzeko hainbat erreferentzi bibliografiko kontsultatu ditugu. Hona hemen, liburutegi eta abarretan aurkitutako liburu nahiz txostenen eta Interneteko txokorik izkutuenean bilatu genuen monografiaren zerrenda:

## Argitalpen idatziak

### Gaitegi bereziko liburuak

- Agirreazaldegia Berriozabal, Teresa. ***Informaziorako dokumentazioaren oinarriak***. Hizkuntza-zuzenketen arduraduna, Gidor Bilbao Telletxea; hizkuntz oharrak, Jaione Alberdi. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2002. 85-95or.(Kazetaritza Saila).ISBN 84-8438-029-7.
- Hidalgo Goyanes, Paloma. ***Análisis documental de audiovisuales***. En: Introducción a la documentación informativa y periodística. Sevilla: MAD, 1999. 333-350.or(Ikusentzunezko saila)

### Doktore-tesiak

- Andérez, Jesús. *Sistemas y criterios de catalogación en el Departamento de Documentación y Archivo de Euskal Telebista* . Alicante : Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes : Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales : Filmoteca Española, 2001
- Vicioso, Cristina. El Centro de documentación de TVE. Alicante : Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes : Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales : Filmoteca Española, 2001

### Monografiak

- Caldera Serrano, Jorge. Unidades de documentación en los servicios informativos de las empresas televisivas.2000.urteko abenduan

## Hiztegi Orokorrak

- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa [linian eta eskuliburuan].  
[http://www1.euskadi.net/harluxet.Hiztegi\\_entziklopedikoa](http://www1.euskadi.net/harluxet.Hiztegi_entziklopedikoa), Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratua.

## Txostenak

- EiTB: 2006ko txostena.  
[http://www.eitb.com/content2/dokumentuak/eitb\\_memoria2006.pdf](http://www.eitb.com/content2/dokumentuak/eitb_memoria2006.pdf) [linean]
- EiTB: Telebista. aldizkari.23.zenbakia. Iurreta:Eitb,urria 2006
- Andérez, Jesús. EiTB-ko Dokumentazio eta Artxibo Sailaren erabiltzaile gida.

## Helbide elektronikoak, eskaintza Interneten

**Etb-ren Thesaurusaren azterketa** <http://www.r020.com.ar/etb/index.php?setLang=en&tema=2734>  
**Centros de documentación audiovisual** <http://www.serv-inf.deusto.es/abaitua/konzeptu/htxt/grupof.htm>  
**Eitb enpresari buruzko informazioa** <http://eu.wikipedia.org/wiki/ETB>  
**Eitbren 25 urteurrenari buruzko berezia** <http://www.eitb.com/eitb25/>

## Irudi baliabideak

- Izagirre, Koldo. Miramon eta Iurretako instazioen dokumentazio zerbitzuak (2007).
- Television Española S.A eta beste telebista kateen logotipo nahiz irudiak (empresa berarena eta honen produktuenak) hauen webguneetatik hartu ditugu.

## Ahozko informazio iturriak

Jesús Andérez. Euskal Telebistako Dokumentazioa eta artxibo saileko arduraduna

---

## IRADOKIZUNAK

---

---

